



# ttiipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus



Antonio ALUSTIZA

→ 25

17. txapela jantzi du Artzain Egunean

2017ko irailaren 7a | XXXVII. urtea | 693. zenbakia

**Herrietako bestak**  
Eratsun, Oiz, Sara eta Elbete.

**EUSKARA → 11**  
Euskaltegiko matrikulazio kanpaina zabalik da

**ETXALAR → 13**  
Dena prest 'Karmen Etxalarkoa' pastoralerako

**LEITZA → 27**  
Taloaren Eguna irailaren 17an

**LAXOA → 41**  
Gazte eta gaztetxoaren finala irailaren 16an

## IKASTURTE HASIERA

# Ikasgelak betetzeko ordua



Hilabete seinalatua da iraila aunitzentzat, udako oporrak bukatu eta lanera bueltatzeko garaia delako. Egun hauetan, adibidez, eskualdeko ehunka neska-mutiko itzuliko dira ikasgeletara. Irakasleak, ordea, hilabetearen lehenaz geroztik hasiak dira. Ikasurte hasierarekin batera, irakasle izandakoen memoria dantzan paratu nahi izan du TTIPI-TTAPAK, Leitzako Asuncion Lasarte eta Baztango Juanjo Atxa irakasle ohiekien solastuz.

**ERREPORTAJEA → 3-5**



**Ane PETRIRENA INSAUSTI** | Sunbillako atleta

**«Atletismoa praktikatzen dugun gehienok afizioz egiten dugu. Ezin duzu bizia honetatik atera»**

20 urte bertzerik ez baditu ere, palmaren ederra osatua du gaur egun Grupo Empleo Pamplona Atletico taldean dabilen atleta sunbildarrak.

Udan, adibidez, Europako 23 urtez beheitiko atletismo txapelketan urrezko domina lortu du Espainiako selekzioarekin 4x100 errelebo lasterketan.

→ 38

**HERRI KIROLAK → 39**

**Euskal Herrialdeen Herri Kirol Txapelketa Saran**

Herriko besten barne, irailaren 9an jokatu da zazpi herrialdeen arteko herri kirol txapelketa. Nafarroako taldea ordezkatzu, eskualdeko hainbat kirolari ariko dira.

**ZOKKETAK**

→ 52



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzi **info@ttiipi.eus** helbidera.





**EUROCENTRES**  
Language Learning Worldwide

Datak: 2017-2018 **kurtsoaren hasiera: 2017/09/18**  
Matrikula: 2017/09/15 baino lehen izena emanez gero,  
**MATRIKULA DOHAINIK!**



Koskontako bidea, 11 behe - LESAKA Tel. 948 637 135 ePosta. info@acornlanguages.com web. www.acornlanguages.com



## Elkarrekin ikastearen xarma

INGELES, FRANTSES  
eta ALEMAN IKASTARO  
PERTSONALIZATUAK

- Haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat ikastaroak
- Ordu-tegi malgua, astelehenetik larunbatera
- Sorterriko irakasleak
- Talde mugatuak (9 ikasle gehienez)
- Ikastaro estandarrak, trinkoak, klase pribatuak
- Enpresentzat ikastaroak eta online ikastaroak. Itzulpen zerbitzuak
- Azterketa ofizialetarako prestakuntza
- Ikastaroak atzerrian

**"BUSINESS ENGLISH"**  
enpresentzako ikastaro bereziak

alaita eta jostaria  
alegre y divertido

freskoa eta naturala  
fresco y natural

bixia eta osatua  
estimulante y completo

ikas eta ari / aprende euskera

eus  
kara  
ren  
kilika

klasikoa eta berritzailea  
clásico e innovador

Matriculikate

euskara errazago egiten

f t ikaeuskaltegiak.eus

**BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**  
Lesaka - Matxinbeltzenea  
Tel. 948 637 796  
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

**MALERREKAKO EUSKALTEGIA**  
Doneztebe - Rosa Seminario, 6  
Tel. 948 451 555  
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

**LEITZA, IMOTZ-BASABURUA eta  
ARAITZ-BETELUKO EUSKALTEGIA**  
Leitza - Euskal Herria Plaza, 1  
Tel. 948 610 776  
leitza@ikaeuskaltegiak.eus



[www.ikaeuskaltegiak.eus](http://www.ikaeuskaltegiak.eus)

**Matrikula zaitez  
irailaren 29a baino lehen**



GIZARTEA → ERRETIROA HARTU DUTEN IRAKASLEAK

# Oroimenean iltzatuak gelditzen diren ikasgaiak

Leitzako Asuncion Lasarte eta Baztango Juanjo Atxa irakasle ohiekin solasean

Lehenbiziko eskola egunean ilusioz beteriko gaztea zen bata, bizitzako ikasgaiak ongi ikasiak zituen emaku-

mea bertzea. Biek zuten irakasle izateko ezinbertzekoa den osagaia: bertzei erakusteko nahia. Ikasturte hasierare-

kin batera, irakasle ohien memoria dantzan jarri nahi izan du TTAPI-TTAPAK beraien ibilbideko kontuak bilduz.

Asuncion LASARTE

«Onez onean, goxo goxo hartuta ikasleengandik gehiago lortzen da haserre jarrita baino»

**50 urte bete zituenean egin zen maistra (Leitza)**

Leitzan ongi gogoan dituzte bere ikasle izandakoek Asuncionen hitz goxoak. 50 urte zituen lehenbiziko eskola eman zuenean eta 15 urte herrian bertan irakasle lanetan aritu ondotik hartu zuen erretiroa, «Leitzan hasi eta Leitzan bukatu nuen».

Hasiera hartan ongi gogoan du emakume batek esandakoa: «amabatek kontatu zidan nola alabari eskolan lanean hasi nintzenez galdetu zion: *irakasle berriren bat hasi omen zaizue eskolan, zahar xamarra... eta*

«Goizean beti hasten genuen eskola ipuin bat kontatuz. Asmatutakoak, liburuetan bildutakoak... egunero diferentea kontatzeko denetatik behar izaten zen».

*zer moduz berarekin? eta alabak nola erantzun zion ezetz ez nintzela zaharra. Ezpainak margotuta eramaten nituela!».*

Ez zen ohikoa adin horretan norbait irakasle lanetan hasiberria izatea baina halaxe egokitu zitzaion berari: «gaztea nintzenezan Goi Mailako Batxilergoa ikasi eta hamalau asignatura gehiagorekin maistra titulua lortzen zenuen. Nire osaba fraile batek asignatura denetan matrikulatu ninduen eta uda horretan bertan ikasketa planean sartzeko hiru asignatura ikasi eta aprobaturatu nituen. Baina ate bat irekita hantxe geratu nintzen, gurekin bizitzen zebait hil egin zelako. Ama bost urte nituenean hil zitzaigun eta izeba hilda-koan ni geratu nintzen aita eta hiru senideen kargu. Ikasketak utzi behar izan nituen».

Urte batzuk berandua go piztu zitzaion berriz irakaskuntzarako harra: «senarraren gurasoak hil



zirenean hartu nuen erabakia. Nire alaba zaharrena, María, magisteritza ikasten ari zen orduan lruñean eta esan nion galdetzeko berak ikasten zuen tokian ikasketak bukatzeko modua izanen ote nuen. Baita galdetu ere! Baietz, egin neza keela erantzun zioten eta ni dudarik egin gabe berriro ere lanera!». Sukaldeko mahaian jarrita aritzen omen zen ikasten, «pixkan pixkan egin nituen denak». Etxeko enbabea ere izan zuen: «senarrak eramaten ninduen lruñera behar ze-

nean eta denek animatu ninduten. Dena ongi aterara eta hala konta!». Disgustu ttiki bat ere izan zuen arren, «lehenbiziko suspensioa, bat bakarra, orduan izandu nuen, musikako bigarren kurtsuan. Baina irailan joan nintzen bi alabak lagunduta eta atera nuen; oso ongi jarri zidaten. 1979. urtean izan zen hori, urte hartan eman zidaten maistra izateko agiria».

Ikasketak bukatu eta berehala jakin zuen herriko eskolan euskaraz zekien norbait behar zutela, «instantzia egin nu-

en Udaletxean, orduan haiek izaten ziren eta izendapenak egiten zituztenak. 1979ko Inozenteen egunean anaiek abisatu zidaten hartu nindutela. 1980ko ilbeltzaren 1ean hasi nintzen eskolan lanean».

Hasieran, bateko eta besteko hutsuneak betetzen, «komodin bezalaz aritzen nintzen. Hurrengo urterako izan nuen lana eta oposaketak egin nituen gero bertan gertatzen zeko». Lehenbiziko oposaketak egin nituenean suspenditu egin nuen eta ustez oso ongi egin ni-



tuenez, delegaziora joan nintzen, umiltasun osoz, baina zer egin nuen gaizki jakitera. Zera erantzun zidaten, oso ongi egin nuela guztia baina ikasle bezala, beraiek irakaslea izatea nahi zutela». Bigarrenaldian bai, atera zituen oposaketak eta Leitizan geratzeko aukera izan zuen.

### GIRO GOXOA ESKOLAN

Hasieratik etxean bezalaxe sentitu izan zen eskolan «oso gertukoa zen harremana». Bertatik bertara zuen eskola, «ikasleak zenbat aldiz etortzen ziren etxera nire bila eskola ordua baino lehentxeago eta haiekin joaten nintzen. Giro oso ona izaten genuen».

«Eskolan mojekin dena erderaz izaten zen, baina guk ez. Beti dena euskaraz egin izandu dut nik. Bai bizi eta baita lana ere».

1929. urtean Unainean sortu zen Asuncion eta beti herrian bizi izan denez ezagunak ziren beretzat familia gehienak:

«ikasleen gurasoak eta aiton-amonak ezagutzen nituen. Beraien familiak leitzarrak baziren zortzi *apellido* aterako nizkion ikasle bakoitzari». Gainera 6-7 urteko gelan egon zen beti eta «hartu nituen haien amona banintz bezala, maite nituen denak eta beraiek ni ere bai».

Adin horretako ikasleei irakurtzen irakastea zen bere eginkizunetako bat: «goizean beti hasten ginen ipuin bat kontatuz. Asmatutakoak, liburuetan bildutakoak... Egunero diferentea kontatzeko denetatik beharizaten zen». Ikasleek bizi egiten zituzten bere kontakizunak: «behin akordatzten naiz, umeak begira begira nituen, eta halako batean raul, sustoa eman nien eta mutiko batek hala esan zidan: hau zerrie! Barrendik atera zitzaion. Horren sartua zegoen ipuinean, bizitzen arizen».

Ipuinekin batera, matematikerekin ere toki berezia izaten zuten bere ikasgelan: «matematika asko egiten nuen nik, asko gustatzen zitzaidan eta. Konparaziora, bazkalondoan sartzen ginenean



UTZITAKO ARGAZKIA  
Asuncion Lasarte  
Gloria Irurtia  
lankidearekin  
eskolako errekreo  
ordua zaintzen.

egiten genuen beti ordu kuarto bat: zenbat dira hiru eta bi? Kendu bi...». Ikasgai bateko eta beste-koak batuz, milaka anekdota biltzen ditu: «politekin geratzen zara. Bat bakarra atera nuen lepa-zurretik hartuta pasillora, esan behar ez zenen bat esan zidalako. Baina ikasizuen, gero axuri bat bezala egoten zen nirekin».

### PENTSAERA DESBERDINAK

Ikasle garaietatik, irakasle garaietara alde handia nabaritu zuen: «ni ikaslea nintzen garaian gauzak beste modu batera ziren. Ez joan etxera kexa

batekin, zerbait egin izan duzu erantzunen zizuten eta. Orduan beti maisuak zuen arrazoi». Lantaldean maisu gazteak sartzen joan zirenean agerian geratzen ziren batzuetan pentsaera desberdinak: «Esaten ziguten lagunak bezala jokatuz behar genuela ikasleekin, konfiantza eman behar geniela, baina neurria hartu behar zaio. Gure ikasle garaia ez zen ona, gehiegizko konfiantza ematea ere ez».

### HIRU BELAUNALDI

Bere familian bertan ere izanen zuten gaiari buruzko solasaldi bat edo

beste: «nik erretiroa hartzeko garaian hiru gizaldi baginen eskolan, nire alaba, haren seme zaharrena eta ni». Eskolak eskaini zion agurra ere ongi gogoan du «oso polita izan zen. Pontxitok bertsoak egin zizkidan eta bazkari bat izan genuen. San Juan bezpera egunean zen eta musika zegoen auzo batean. Umeekin dantzan ibili nintzen».

Iribarre batez kontatzen ditu garai haietako kontuak «eskatu ere ez nuen eskatuko dena horren ongi joatea. Herrian lanean, hain gustura airtzeko aukera izatea».

## Juanjo ATXA

# «Errespetu gehiagorekin tratatzen gintuzten lehen ikasleek. Gero eta lehenago galtzen dute»

37 urtez Baztan Ikastolako irakaslea (Almandoz-Elizondo)

*Lasaitu nauen kama-mila. Ez dakit eman dizudan zuk eman didazun pila.* Hunkituta, hitz horiek erabili zituen Juanjo Atxak duela bi urte, 37 urtez Baztan Ikastolan irakasle ibili eta gero kanta-

tu zuen agurreko bertsoetan. Halaxe, kontent ibili baita ia lau hamarkadatan irakaskuntzan. Gehiago ere erran digu: «irakaskuntzak dena eman dit».

Almandozen sortua, hantxe eman zuen bere haurtzarora 12 urte egin arte. Handik Iruñera joan zen ikasketak egitera: «herriko andereñoaren aholkuz, gurasoek Iruñe-



ARGAZKIA: MENA

Juanjo Atxa Baztan Ikastolako bere azken ikasle taldearekin.

ra bidali ninduten ikasketak egitera». Aitortu digunez, «izituta» joan zen, «ordura arte herrik ita inoiz atera gabekoa nintzelako, eta gutiago orain-

dik bakarrik». Iruñean egin zituen irakasle-ikasketak ere. «Ikasketak akitu baino lehenago ikastola bat baino gehiagok egin zidaten lanera joateko eskain-

tza». Berak, ordea, etxeko aukeratu zuen: «ordurako Elizondokoa eta gaur egun nire emaztea denarekin ateratzen hasia nintzen, eta horregaa



tik, eta nire txokoa zelako, Baztan Ikastolaren eskaintza onartu nuen». Hor ibili da geroztik, 2015ean aurretiko erretiroa hartu zuen arte, eta berak dioenez, «gustura, lankide-zoragarriak izan baititut».

«Borroka latza egin behar izan genuen oraingo ikastetxea lortzeko: klaseak udal-letzeko pasiloetan, Elbeteko pilotalekuan, serorategian...».

### MOMENTU GAZI-GOZOAK

Momentu ederrak eta gogorak. Denetarik ikusi du irakaskuntzan. Gogoan du, «hasieran, urduri eta beldurti» sentitzen zela irakasle lanean, «baina poliki-poliki lasaituz joan nintzen. Gogoajari eta lanari ekin nion, eta hortik aitzinera, gustura ibili nintzen lankide eta haurrekin. Haurrak gustuko izan ditut eta oraindik ere hala ditut».

Hasierako urteetan «une larriak» pasatu omen zituzten, eta «baldintza kaxkarretan» lanean aritzea ere tokatu zitzairen: «gero eta haur gehiago genituen, eta ikastetxea ttiki gelditu zitzaigun». Egoera politikoa ere hala koa zen 70. hamarkadan, eta Atxaren hitzetan, «borroka latza egin behar izan genuen orduan hutsik zegoen eta gaur egun Ikastolak duen eraikina lortzeko: klaseak udal-letzeko pasiloetan, Elbeteko pilotalekuan, serorate-

gian... Manifestaldiak... Arrunt gogorra izan zen». Bazituzten oztopo gehiago ere: «orduan Udala ere aurka genuen».

Baina ezina ekinez egin dela diote eta hala, «ikastolako jendea arras kontzientziatua eta elkartua zegoenez, azkenean, nahi eta behar genuena lortu genuen». Horri gasetetasunaren indarra gehitu behar zaio. «Nahiz eta ikastolan baldintza kaxkarretan ibili», Juanjok dio «gazteak izaki, ilusio, gogo eta lan haundia eginez, aitzinera egin genuela. Hori guti balitz, eskola akitu eta ilunabarretan Gau Eskolan helduei eskuaraz erakusten ere aritu ginen».

Eskuaren alde Baztan Ikastolak egin duen lana ere azpimarratu du. 1970. urtean ireki zuten Elizondon ikastola, eta erdal giro haundiko garaiak ziren: «Elizondon, gure adinekoek eta gazteago ziren gehienek ez zuten eskuaraz solasten, ez zekiten, ez zieten erakutsi. Haurrak ere, ikastolakoak eta guti gehiago aritzen ziren eskuaraz. Hortaz, erran daiteke, batez ere, ikastolari esker ez zela eskuaren transmisio katea moztu. Noski, horretarako sortu ziren ikastolak». Bere irudiko, «gerora, erdarazko eskolatan, ikaslerik gabe geldituko zirela ikusiz, eskuaraz ere ematen hasi ziren». Gaur egun, egoera onerako aldatu da: «orain,



UTZITAKO ARGAZKIA

Juanjo Atxa bere ikasleekin, irakasle hasi zen lehendabiziko urtean.

«Orain, Elizondon eta Baztanen haur gehienek badakite eskuaraz eta eskolan bederen eskuaraz solasten dira».

Elizondon eta Baztanen, haur gehienek badakite eskuaraz eta eskolan bederen eskuaraz solasten dira. Karrikan eta etxean ez hainbertze, baina behinik-behin badakite».

### ALDAKETA AUNITZ

Irakaskuntzaren bilakaera ere hurbiletik eza gutu du Juanjok: «aunitz hobetu da. Hasieran baliabide guti genituen. Ikastolan behintzat bai, eta

orain aunitzez ere gehiago daude». Gogoan du, «gau eskola ematen genuenean, saguak agertzen zirela ikastola zaharreko geletan, eta behin bat hartu eta zakarrontzi batean sartu nuen gaineko aldea estaliz. Biharamunean, andereño eta ikasleen artean sortu zen zirkua ikustekoa izan omen zen».

Irakasle kopuruan ere aldea nabaritu du: «lehen irakasle guti ginen, eta orain gehiago. Baina beti eskola publikoetan baino gutiago, eta nahiz eta lan berdintsua edo haundia egin, gutiago ordaindua izan da gure lana».

Hala ere, dena ez da onerako aldatu Atxaren irudiko: «salbuespenak salbuespen, lehen, errespetu gehiagorekin tratatzen gintuzten ikasleek. Orain, gero eta lehenago galtzen dute errespetua». Baina onartu duenez, «ezin naiz aunitz kexatu alde horretatik».

### IKASTOLAZ AHANTZI GABE

Kontent zen irakasle zela, eta kontent da erretirata ere. Beretako «den-

bora pila» baitu orain. Eta tarte hori gustuko duen hori egiteko probesten du: «mendan, Baztango txokoetan ibiltzea aunitz gustatzen zait eta igeri-aren ere ibiltzen naiz». Edo berak umoretsu dioenez, «igeri egiten edo urpera joan gabe mantentzen». Liburuak ere atsegin ditu eta etxeko lanetan ere «gehiago» aritzen omen da orain, «agian ez hainbertze, baina sukaldetan ere hasi naiz zerbait...».

Ikastola ere ez du guztiz ahantzi. «Noizbehinka ikastolara bisita egitera eta laguntza eskatzen daten aldi oro ere gustura joaten naiz». Baina ez omen du faltan botatzen lana: «gustura nago, buru hausterik gabe. Jubilatuta konturatu nintzen nolako lasaitasuna eta atsedena hartu zuen nire buruak».

Ikastolako jendeaz, ordea, oroitzen da: «haurrak faltan botatzen ditut, gehienak zoragarriak dira, eta izan dudan lantaldea ere bai, plazer haundia izan da beraiekin lan egitea, pribilegiatua sentitu izan naiz. Esker mila».



Juanjo Atxa duela urte batzuk bere ikasleekin Aritzakunen.





**Nire txanda**  
Fernando ANBUSTEGI

## Oporrak

Opor egunak ditut eta oporren inguruko hausnarrean ari naiz. Nere aitzinetik, jende aunitzek opor egunak disfrutatu, edo behar bada hobe, opor egunak izan ditu. Disfrutatu duenari buruz... eztabaida dezakegu.

Kanpotik honat etorritako jende pila bat ikusidut eta bere jarrerak pentsatzera eraman nau. Gu ere horrela ibiltzen ote gara? Eztabaida gutti hortan. Oporrak langileon eskubidea dira, bai, baino badirudi hortik haratago, opor jakin batzuk disfrutatu ezean, ez dugula oporrik izan. Ez dakit nongo hondartzara, ez dakit nongo mendira, ez dakit nongo ur-jauzira, ez dakit nongo hilerrira... nekazalgo eta abeltzantza gero eta guttiagok praktikatzen duten garai honetan, gero eta ardi gehiago dagoela dirudi. Denok ardi bilakatu gaituzte, harat-honat artaldean bideratuz. Baina, nor da artzaina? Erran bezala, oporretan nago, eta zirikatzeke goz, doike!

«Denok ardi bilakatu gaituzte, harat-honat artaldean bideratuz. Baina nor da artzaina?»

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Ordenagailu bidez ezagutu

Bukowski (1994an hil zen) igarle ona izan zen. Halaxe utzi zuen idatzia: «Gaur egun dena ordenagailuak dira eta laister mundu guztiak izanen du bat, 3 urteko haurrek ere ordenagailuak izanen dituzte eta mundu guztiak bertzearekin zerikusia duen guztia jakinen du elkar ezagutu baino lehenago eta hortaz, inork ez du bertzea ezagutu nahi izanen eta denak bakartiak izanen dira». Buf!

## Nabarmentzekoak




Dani IPARRAGIRRE  
Saran txapeldun

Sarako kontrabandisten lasterketan, 36 lasterkarien artean, Dani Iparragirre arantzara izan zen helmuguraren lehena. 42 minutu eta 25 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko.



Antonio ALUSTIZA  
Uharte-Arakilen txapeldun

Abuztuaren 27an jokatu zen Nafarroako Artzain Txakur Txapelketa irabazi du aresoarrak. Jai txakurrarekin egindako lan txukunari esker hamazazpigarren txapela janztea lortu du.



Xanta SOUZA  
Erakustaldia Sunbillan

Lesakarrak 75 kiloko txingekin erakustaldia eskaini zuen Sunbillako Ramon Latasa sariketan. Bi plaza eta 7 metro osatu zituen, 63 metro denera. Erronka berriei eusteko prest dago!

Atzera begira → 2007-IX-06 • TTIPI-TTAPA 453 zk.



### Doneztebe Futbol Taldea lehen aldiz erregionalean

Kluba 2004. urtean sortu bazen ere, duela hamar urte lehen aldiz erregionaleko futbol taldea zelairatu zuen Doneztebe Futbol Taldeak. 25 futbolarik osatzen zuten taldea, horietatik 14 Doneztebekoak, eta gainerakoak Ultzama, Sunbilla, Narbarte, Zubieta, Legasa eta Eltzaburukoak ziren. Mikel Maia, Jabier Jabalera eta Juan Carlos Arregi aritu ziren lehen denboraldi hartan entrenatzaile. Hori bai, entrenamenduak eskolako futbol zelaian eta 'etxeko' partidak Atarrabian jokatu behar izan zituzten. Zorionez, egoera hori moldatu da azken urteetan, futbol zelai berri dotoreari esker.

**ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus



Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruña Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Gueren-diaín, Martin Bertiz, Martin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

### 2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua





Kolaborazioak

## Manex tiragomarekin

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

**H**andik egun batzuetara, baserri inguruan, Manexek langa baten ondoko beste sagarrondo batean, kaskabeltz handi batzuen kumeak beren gurasoen zebiltzala ikusi zuen, adarretan, hegaka, adar batzuetatik beste batzuetara; habiatik hegaldatu berriak. Oraindik oso gaztetxoak ziren, eta hegal kontuetan trakets zebiltzan, normala den bezala: astiro, baldarki, segurtasunik gabe eta hegaldi oso motzak egiten zituztela.

Mutikoak berehala izan zuen burutapen bat, alegia, etxera joan, tirabikea hartu, larrainean sakela harri koskorrez bete eta txorikumeen bila abiatu. Poliki eta kontu handiz hasi zen hurbiltzen txoritxoengana, ez izutzeko. Kumetxoak ez ziren konturatu, eta, ondorioz, ezta asaldatu ere. Baserritar gaztetxoari iruditu zitzaionean nahiko hurbildu zela, ordurako prestatuta zeukan tirabikea, txorikume baten aldera bideratu, arreta handiz apuntatu, ongi-ongi kalkulatu..., baina harritxoak jaurti baino lehen, hegaztixoa beste adar batera mugitu zitzaion; zorte txarra! Manexek egoera egonari handiz hartu eta berriro ere saiatu zen apuntatzen. Txorikume berberarekin jardun zuen, eta tirabikea ongi bideratuta zeukala iruditu zitzaionean, hantxe bota zion legarra, baina, zoritxarrez, ez zuen jo hegaztia, ondoko adartxo bat baizik. Txorikumea arriskuaz ohartu bezain laster, alboko lizar batera joan zen bere hegaldi baldarrean. Baina, sagarrondoan bazeuden oraindik beste bi kaskabeltz kume. Haietako bat aukeratu eta hari saiatu zitzaion hirugarren aldiz harri koskorra botatzen. Patxadaz kalkulatu, apuntatu eta berriro jaurti. Eureka! Oraingoan bai! Azkenean, txorikumea harriarekin jo eta lurrera botatzea lortu zuen gure mutiko bihurriak; goitik behera eta jira-biraka joan zen txoritxo gaixoa lurreraino.

Manex pozak txoratzen, tirabikea lurrera bota, eta ziztu bizian abiatu zen txorikumea harrapatzera; lasterka. "Azkenean! Hauxe nirea duk, bai!", pentsatu zuen bere baitan. Txoritik hurbil zegoen. Makurtzen hasi zen bere harrapakina hartzeko, baina, hara!, a zer ustekabea! Azken momentuan, lumaduna hegaldatu eta bere muturraren aurrean ez zion hanka egin, ba? Mutikoak ezin zuen sinistu ikusten ari zena; ez zuen inola ere onartu nahi gertatzen ari zitzaiona, baina, azkenean, tamalez berarentzat, ontzat hartu beste erremediorik ez zitzaion gelditu.

Eta, zer izan zen, gertatu zena eta Manexek ulertu ezin zuena? Zein misterio arraro izan zen hura, txorikumea hil ondoren berpiztu al zen, ba? Ez, ez, ez! Hantxe ez zen inolako ezkutukorik gertatu. Pasatu zena zera izan zen, mutikoak urduritasunarekin indar gutxiz bota ziola harrিকা txoritxoari eta horren ondorioz, kaskabeltz txikia zora biatu, txepeldu eta lurreraino joan zen goitik behera, sagarrondoaren adar eta hostoen artean, baina behin behean zegoela, soropilean, eta segundo batzuk igarotakotan, berriro ere ernatu eta hegan egiteari ekin zion, Manexen atzaparretatik ihes egiteko eta aske izan zedin.

Ordurako, Manexen eskarmentua ez zen nolanhikoa galbide eta galera haietan, baina hala eta guztiz ere, berriro ere egundoko muturrekoa hartu zuen; frustrazio galanta.

## Margotzearen 5 onurak gazte eta adineko jendearentzat

Pilar MARTINEZ, Esther FERNADEZ eta Iciar MIKELPERIZENA

**M**argotzea, denok noizbait egin dugun aktibitate bat da. Txikitan margotzea eta marraztea ikaragarri gustukoa dugu kuadernoan, arbelan edo paretan. Hain artistikoa eta hainbeste entretenitzen gaituen ekin-tza hau, ez da bakarrik ona gazteendako, edozeinendako baizik, adinekoendako bereziki. Margotzen dugunean hainbat ahalmen garatzen ditugu, hala nola pazientzia, kontzentrazioa, pertseberantzia, sentimenduen adierazpena eta dibertsioa.

### ONURA KOMUNIKATIBOA

Margotzeak, gure alderdi komunikatiboan laguntzen gaitu, sentitzen duguna eta zerbaiti buruz daukagun ikuspuntua modu desberdin batean adierazteko aukera ematen digu. Margotzearen bidez hainbat sentimendu, emozio eta pentsamendu azaltzen ditugu. Komunikatzeko modu hau oso aipagarria da desgaitasunak, komunikatzeko arazoak edota lotsatiak diren pertsonen artean.

### BURUKO OSASUNAREN DAKO ONURAK

Margotzeak kontzentrazioa eskatzen du, honen bidez, gure inguruan dauden gauzez ahazten gara, gorputzeko minnez, egoera zailez, arazoez eta lasaigarri eta ederra den gauza bat garatzen saiatzen garen bitartean ikusiko dugu pixkanaka gure lana hobetuz joanen dela eta horrek azkenean autoestimua goratuko digu.

### GARUNEAN ONURA

Margotzen dugunean, garuneko bi hemisferioak lantzen ditugu, ezkerra, eginkizun logiko eta zentzuzkoen arduraduna dena eta hemisferio eskuina, sormenaren, esmozioren eta irudimenaren arduraduna. Beraz, margotzea oroi-men lehena eta berriarentzat mesedegarria da.

### MUGIMENDURAKO ONURAK

Margotzerakoan material desberdinak erabiltzeak, arkatza, pintzelak, ikatz-ziria, eskuaren, besoaren eta garunarekin konexio guztiak garatzen laguntzen digu.

### GURE PLAZERRA ETA DIBERTSIORAKO ONURAK

Margotzea, lasaitu eta erlaxatzeko ekin-tza ezin hobea da eta dibertitzen garen bitartean, sormena garatzen dugun bitartean edertasunaren bila gabiltzala, bertze pertsonen konpaniaz gozatu eta horrela adiskidetasuneko harremanak finkatu ahal dira.

MARGO

2017/18

PLAZA MUGATUAK

IKASTAROA



Margota, Er-laxata eta Disfratata!

**ICAR MIKELPERIZENA**  
 T. (+34)661 010 416

Inskripzio epea Zabalik

EZ DA BEHARREZKOA ESPERIENTZIA IZATEA

GAZTEAK (9 urtetik aurrera), HELDUAK (adin guztiak)

Urritik ekainera

BERAN, LESAKAN, DONEZTEBEN, ELIZONDON





### Argazkiak, abisuak, berriak...

Zer kontatua duten horien bila...

#### TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Beti dago zer kontatua, eta horixe da txoko honen helburua: kontuak kontatzea, kexak plazaratzea, eskertza publikoak zabaltzea, proposamenak bideratzea... edota, zergatik ez, aipatutako horietako zerbaiti erantzuna ematea.

#### 15 lerro gehienez ere

Zuzenean mamirajotzea da hoberena, eta kontatu beharreko hori gehienez ere 1.000 karakteretan egitea, hutsuneak barne.

#### Argazki batekin lagundua bada, aski ongi!

Hitzekin diozuna argazkiren batekin osatuz gero, komunikazioaren eraginkortasuna nabarmen hobetuko da.

### Goienetxe-Larralde lehengusuen bazkaria Etxalarren

Markos NEGUERUELA | Lazkao - Etxalar

Uztailaren 31n **Goienetxe-Larralde** lehengusuen arteko bazkaria izan genuen Etxalarako Elutsa ostatuan.

Borzgarren urtez jarraian ospatu dugu aurreten. Garrantzitsuena,

gure izeba **Dolores Goienetxe Larralde** etxalartar petoa, bere 90 urtekin, hantxe egondo zela. Hori bai marka!

Han elkartu ginien 15 lehengusu eta polita izan zen.



### Bota bertsoa

Ekhiñe ZAPIAIN ARLEGI (Bera)

Doinua: Itsasoari begira

Baztan-Bidasoko 30. Bertsopaper lehiaketan

1. saria (15-18 urte)



### Sorginei

1- Amatzik beti izan ohi zuen jende mordoa zelatan mendi gainean, etxean edo herri barneko estratan egun batean dena aldatu zen jakin nahi nuke nolatan indar bortitez eramen zuten ta maiz botatzen dut faltan iluntasunak irabazi zun gaur argitsu eder hartan.

2-Gogoratzen dut belar bilduma ta ukenduen koktela gogoratzen dut bere jauntzi ta bere baserri epela baina ez dakit zergatik jendik tratatzen zuen horrela ulertuko dut amatzik beti erraten zuen bezela: desberdin bizi ta pentsatzeak min egiten ez duela.

3- Iritsi zaizkit egun hartako mila kondaira famatu ba omen zeuden berrogeita hamar emakume kandidatu behin ta berriro saiatu arren ezin ziren eskapatu ta su haundiak egin zituen tortura hutsez akatu baina arima gau goibelean ez zen errauts bilakatu.

4- Hauxe izan da nere istori kondaira edo fabula ezagutzeko haien bizitza ta egoera ahula Euskal Herriko istorioen bilduma eder mardula oroimen hori landu dezagun ez ahazteko sekula oraindik ere sorgin ugarik libre jarraitzen dugula.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«Punta-puntan aritzen nintzen, 25-26 urteko mutikoen kontra. Esan daiteke adinik ez duen kirol bat dela plater tiroketa». «Lehen batera aritzen ziren denak, emakumeak eta gizasemeak. Baina, 1992ko Bartzelonako Olinpiar Jokoetan emakume txinatar bat izan zen irabazlea. Hortik aurrera, kito: batzuk alde batetik, eta bertzeak bertzetik».

«Baztertu ez dut baztertu, baina geroz eta esperantza gutxiago daukat Olinpiar Jokoetara joateko». «Pena da, baina zaleztasun gisa hartu beharra daukat. Ezinezkoa zait tirotik bizitzea, Espainiako Federazioak ez baitu horretarako baldintzarik eskaintzen. Orduan, oso zaila da nazi-oartean emaitza onak lortzea, profesionalen aurka ari baitzara».

**Antton FAGOAGA**  
Lesakako tiralaria  
BERRIA 2017.08.09

**Itsaso FAGOAGA**  
Lesakako tiralaria  
BERRIA 2017.08.09

**11 galdera labur**

**Nor dugu Paula?**

Gaur egun Baztanen bizi den neskatiko gazte bat. Ezagutzen naue-nak badaki nor naizen...

**Zein afizio dituzu?**

Betidanik aritu izan naiz eskubaloian. Kirolak toki garrantzitsua du nire bizitzan eta musika ere aditzen dut aunitz.

**Asteburuko planik ederrena?**

Bazkari edo afari bat. Lagunekin elkartuta, bazkal edo afalondoan akordeonarekin kantuz akitzea.

**Elbeteko gustuko tokia?**

Amonea aldea. Putzuetara salto egiteko tokiak daude, arras polita da... erlaxatzeko tokia.

**Bestazalea zara?**

Bai, dudarik gabe.

**Eguneko bestazalea edo gau-txoria zara?**

Egunez gauza bereziak egiten dira, ekitaldi gehienak izaten dira eta bereziagoa da. Baina gehienetan eguna arratsarekin lotzen akitzen dugu.

**Nola definituko zenituzke Elbeteko bestak?**

Alaiak, herrikoiak... ongi pasatzea erraza da bertan!

**Zer da bestetatik gehien gustatzen zaizuna?**

Arras ongi pasatzen dut zikiro egunean, bazkalondoan kantari.

**Aurten sorpresaren bat ere pres-tatu omen duzue...**

Gazteok zer bait berezia antolatu dugu aurten, sorpresa bat. Nik us-te aterako dela ongi eta eginen ditugula irriak. Zer den jakin nahi duena etorri dadila!

**Zer behar duzu zoriontsu izateko?**

Zoriontsu izatea gaizki atera diren gauzak onartu eta gauza onekin gelditzea da. Gure esku da-goela iruditzen zait, ni ezin naiz kexatu.

**Amets bat?**

Ez dut amets handirik. Zoriontsu izaten segitzea, bertzerik ez.



**Paula URRUTIA GOIENETXE → Elbeteko gaztea**

**MARITX**  
• Ingeniaritza elektrikoa • Boletin industria  
• Proiektu elektrikoak • Instalazio elektrikoak  
**Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450**

**sarobe**  
gozotegia okindegia  
pº de eztegarra 25 bajo  
31780 berá (navarra) t.948 63 08 99  
[www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa  
• Kirol Fisioterapia  
• Osteopatia  
• Masaiaik  
• Trafiko istripuetan aholkularitza  
• Istripu eta osasun aseguruak  
• METODO BERRIA  
Umeentzako arnas fisioterapia  
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**KATEA BIKE**  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.  
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak  
**2. eskuko bizikletak**  
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218  
[kateabera@telefonica.net](mailto:kateabera@telefonica.net)  
MASSIMO ORBEA CANNON SCOTT LOOK

**zalain**  
JATETXEA - RESTAURANTE  
Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. [www.zalain.info](http://www.zalain.info)



# BERA

OSPAKIZUNAK → AUZOKO BESTAK

## Irailaren 16 eta 17an besta giroa nagusi Illekuetan

Larunbatean herri bazkaria eta igandean pintxo dastaketa izanen dituzte

- 14:30 Herri bazkaria Illekuetako karrikan.
- 18:00 Mus txapelketa.
- 19:00 Bera kantari.
- 21:00 Dantzaldia.

### IGANDEA, IRAILAK 17

- 12:00 Auzoko meza Irigotian.
- 12:00 Illekuetako karrikan haurrentzako marrazki lehiaketa. (Parte hartu nahi dutenek margoak ekarri beharko dituzte, papera antolatzaileek emanen dute).
- 16:00 Haurrentzako jolasak.
- 19:00 Gure Txokoa dantza taldearen emanaldia.
- 20:30 Pintxo dastaketa.

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 16 eta 17an ospatuko dituzte Illekuetako bestak. Bi egunez, hamaika proposamen bildu dituzte:

### LARUNBATA, IRAILAK 16

- 12:00 Konpane zubitik altxaferoa botakoa dute beste hasiera emanez.
- Ondotik, buruhaundiak, erraldoiak eta gaiteroak.
- 13:00 Herri kirol saioa.

### FLASH

#### Euskal Herria-Eire Topaketa irailaren 9an

Nafarroa Oinezen baitan, irlandarrekin topaketa antolatuko dute. Mendi ibilaldia, ongietorria, Trenbide(o)a lehiaketako sari banaketa eta kantu bazkaria dituzte prest.

#### Irailaren 24an musika emanaldi berezia

Irailaren 24an Kultur Etxean Javier Perez de Azpeitia pianista beratarra eta Miguel Olano tenore errioxarra emanaldi eskainiko dute 19:00etatik aitzinera.



UTZITAKO ARGAZKIAK

#### Txistu bizian piztu eta bortz egunez iraun zuen bestak

Txistulari taldeak botatuko txupinazoarekin hasita, bortz eguneko besta bikainak izan zituzten Beran. Dantzarien emanaldiak, pilota, danborrada... Aurten, Altzateko plazako musikari indar berezia eman nahi izan zioten eta jendetza bildu zuten emanaldiek. Baina bestetako bertze bereizgarria besta auzoetara eraman nahia izan zen eta musikarien bisita izan zuten han eta hemen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

#### Musikak, kirolak eta bestak elkar hartu dute Agerrako bestetan

Ortzegunetik igandera, auzotar eta bisitariak, bortz eguneko egitarauaz gozatzeko aukera izan zuten. Urtero bezalaxe, zozketa ere egin zuten eta hauek dira zenbaki saridunak: 1. saria: 2.598 (Auzo afarian saldua), 2. saria: 2.720 (bazkarian saldua) eta 3. saria: 1.835 (Lasarte-Goia farmazian saldua).

**KSAT**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ANDONI  
LASAGA APEZTEGUIA

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetrikoko ultralastera

T. 637 40 86 40 | 31780 BERA | [andonimabako@gmail.com](mailto:andonimabako@gmail.com)

**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab  
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

xirgil  
jaione goya

ileapaindegi mistoa  
Alzate 1, 31780 BERA  
948 631 462

EUSKARA → MATRIKULAZIO KANPAINA

## ‘Euskara musu-truk’ ikasteko aukera izanen da Bortzirietan

Izena emateko epea irailaren 1etik 29ra arte

### TTIPI-TTAPA

Ikasturte berria ate joka dugu euskaltegian eta Euskara Mankomunitateak herritarrak euskara ikastera animatzeko kanpaina abiatu du: *Euskara musu-truk! Sólo te costará un beso*. Joan den urtetik euskara ikastea debalde da Bortzirietan; bertan erroldatutako herritarrei ikastaro osoa finantzatzen die eta Euska-

ra Mankomunitateak.

### HARRERA ONA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko arduradunen ustez harre-  
ra ona izan du ekimenak: «euskara debalde ikasteko aukerak jende gehiago erakarri du euskaltegira, eta ikasleen parte hartzea eta aprobetxamendua hagitz txukunak izan dira. 45etik 71ra igo da ikasle kopurua urte batetik bertzera, eta euskara ikasten hasteko behe urratsetik 20 ikasle be-  
rri izan dugu».

### IZEN-EMATEA

Izena emateko epea irailaren 1etik 29ra izanen da. Matrikulazioa eta finantzaketarengaineko informazioa eskuratu nahi duenak, Bortzirietako Euskaltegira deitu (948 637796) edo Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen web orrian ([www.bortziria.es](http://www.bortziria.es)) lor dezake.

### DIRU-LAGUNTZAK

Diru-laguntzak jaso ahalizateko honako baldintza hauek bete beharko dira: Bortzirietan erroldatua egotea, asis-

tentzia %85etik goitiko izatea eta ikastaroaren aprobetxamendu egokia egiaztatzea.

Matrikularen gastu osoa ordainduko zaie baldintza hauek betetzen dituztenei (gehenez 380 euro). Lagun-

tzak jasotzeko urriaren 13a baino lehen beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute: Eskaera orria behar bezala beteta, NAN fotokopia, Euskaltegiko izen-emate orria eta konpromiso idatzia.

### MATRIKULAZIOA GIROTZEKO

#### Irailaren 15ean kantaldia Lesakan

Plaza zaharrean Aire Ahizpak zuzenean entzuteko aukera izanen da 20:30ean.

#### Irailaren 22an poteo berezia Beran

19:00etan Beralandetatik abiatuta bertso-triki-pintxo-poteoa.

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

# AMETS

KOLTXOI  
ADIMENDUN  
BERRIAK  
ETORRI ETA PROBA EZAZU!!

SMART  by pik.eus

mueblesamets.com

KOLTXOIA  PULTSERA  APP 

Sastrin Kalea 2,3,4 Bera (Nafarroa) | 948 630 537 | [mueblesamets.com](http://mueblesamets.com) | [amets@mueblesamets.com](mailto:amets@mueblesamets.com)



## LESAKA

KULTURA → HERRIKO HISTORIAREN IBILBIDEA AZTERTZEN DU ARO MODERNOAN

# ‘Piedra, hierro y papel’ liburua aurkeztu du Herriko Etxeak

Historia eta ondarea aztertzen ditu

**Aitor AROTZENA**

*Piedra, hierro y papel. Trayectoria histórica de la villa de Lesaka* izenburupean, 435 orriko liburu mardula argitaratu eman du Udalak, Eusko Ikaskuntzarekin sinatutako elkarlanaren baitan. Lehen aleak uztailaren 6an Sanferminetako txupinazoa bota zuten Modesto Maia eta Tomas Rekondori eman bazizkieten ere, abuztuaren 17an egin zuten aurkezpen ofiziala Herriko Etxean. Liburua 20 eurotan salgai dago Legarra, Telletxea eta Xagu liburudendetan, baina edizio digitalean ere ikusgai izanen da udalaren webgunean eta Nafarroako Liburutegi Digitalean.

2009an sortu zen honelako lan bat egiteko ideia. Ana Zabalza Seguín-ek zuzendu du lana eta bere idatziaz gain, Jose Luis Etxegarai Andueza alkatearena, Jose Maria Esparza Urrozeta eta Egoitz Telletxea Etxeparearena ere ageri dira.

Jose Luis Etxegarai-  
ren idatzia Lesakaren iragana eta gaur egungo



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Zabalza, Etxegarai, Esparza eta Telletxearen idatzia biltzen ditu liburuak.

egoera ditu hizpide, jatorria, eboluzio demografikoa, udal bizitza, jarduera ekonomikoa eta bestak eta 1423ko edo 1890eko udal ordenantzen berri ere ematen du. «Lan honetan, herriko artxibotik ez ezik, lehenetik ere idatzia dauden lanetatik ere edan dugu, informazio ahalik eta zabalena eta onena emateko».

Ana Zabalzak Lesaka Aro modernoan du hizpide eta 1607ko herriaren bizimodua, Nafarroako Gorteetan zuten lekua eta Lesakan jatorria duten hiru leinu garrantzitsu, Zabaleta, Marichalar eta Barrenechetarrak aztertzen di-

tu. Liburuaren zuzendaria aipatu duenez, «ez da liburu itxia, irekia baizik, Lesakako historiaren ikuspegi bat ematen duena». Horren erakusgarri, azalerako erabili duten argazkia: «Duela mende bateko ezpata-dantzariak ageri dira eta hasieran ezezagunak baldin baziren ere, gaur gaurkoz guztiak identifikatu ditugu».

Jose Maria Esparzak arkitektura zibilaren ondarea, hirigintza konturak, dorreak, etxeak eta baserriak, Minddurienea eta Zabaleta eta Lesakako Hirigintza Plana aztertzen ditu, bertzeak bertze.

Egoitz Telletxeak,

azkenik, herriko monumentu erlijiosoen historia eta ondarea aztertzen ditu, San Martin de Tours eta karmeliten konbentuari aipamen berezia eginez. Telletxeak aipatu duenez, «akaso ohi-tuegiak gaude Lesakako ondarea ikustera eta ez dugu behar bezala baloratzen, ez gara 5 minutuz jartzen eta ikusten. San Martin elizako erretaula barrokoarekin eta garai batean komentuan zegoen ondarearekin bakarrik, erran dezagula Nafarroa osoan ez dagoela horrelako aberastasunik izan duen herririk eta estatu mailan ere zaila izanen da horrelakorik topatzea».

## FLASH

## Mendi Bizikleta Ibilaldia

Beti Gazte elkarteak antolatuta, Mendi Bizikleta Ibilaldia egingen da irailaren 17an. Kirolariak bi ibilbide izanen dituzte aukeran, 40 bat kilometrokoa luzeena eta 30 bat kilometrokoa laburrena. 09:00etan hasiko da ibilaldia eta izena aitzinetik (*kirolprobak.com* atarian) edo egunean berean ematen ahal izanen da.

## Irlandarrekin topaketa

Nafarroa Oinezen baitan, Euskal Herria-Eire Topaketa antolatu dute larunbat honetarako, irailak 9. 09:00etan abiatuta, mendi ibilaldia egingen dute Lesakatik Berara eta Bidasoko trenbidetik pasako dira. 11:30ean San Migel zubian irlandarrei ongietorria egingen die-  
te txalaparta eta tobera doinuekin, eta handik, txistulari eta trikitalarien laguntzarekin, Berara joanen dira kalejiran. 13:00etan joan den asteburuan egiteko zen Trenbide(o) a lehiaketako bideo-lan-  
ak aurkeztu eta sariak banatuko dituzte Labiaga Ikastolan. Eguna borobiltzeko, 14:30ean kantu bazkaria antolatu dute Altzateko frontoian. Bazkarirako txartelak Izarra okindegian eta Tantirumairu Ikastolan eros daitezke, eta Beran, Puri-Enean eta Labiaga Ikastolan.

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TEL: 948 625 474

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Peñen blusak  
**kattagorria**  
lentzeria mertzzeria  
Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**IRU BIDE**  
Erreteria · Asador  
Biuerrana, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127

**BEKO**  
LÖREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa · LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

KULTURA → IRAILAREN 16AN ETA 17AN

## Urduritasuna nabari da herrian pastoralaren egun haundiak hurbiltzean

Azken prestaketak bertzerik ez dira falta

**Iruñe ELIZAGOIEN**

Irailaren 16 eta 17ko emanaldiak 15:30ean hasiko badira ere, antolatzaileek lehenago joateko gomendioa eman dute azken orduko jende pilaketak eta arazoak ekiditeko. Plazan ostatua egonen da eta bertan bazkaldu eta afaltzeko aukera izanen da bi egunetan pastoralari hasi aitzinetik eta ondotik. Pastoralari jarraitu ahal izateko liburuxkak ere salgai egonen dira plazan bartz eurotan. Sarrerak salgai daude eta hemendik aitzinetik azken berriak sare sozial edota web orriaren bidez emanen dira.

### Urritzokietako bestak

Bertze urte batez, Urritzokietako auzotarrak Santa Krutz bestak antolatu dituzte. Aurten-

goan pastoral delata eta, Asaua aste bat gibelerratu dute eta irailaren 24an izanen da.

### IRAILAK 14, ORTZEGUNA

11:00etan txupinazoa botako dute Sainduneko zubian eta 12:00etan meza izanen da Santa Krutz ermitan. Ondotik, auzotarrek haiketako eskainiko dute. 18:00etan txokolate-jana izanen da Sainduneko zubian eta 21:00etan zingar jatea auzotarrentzat.

### IRAILAK 24, IGANDEA

12:00etako mezaren ondotik, auzoko trikitilariak kalejiran ibiliko dira. 14:00etan Asaua egiten dute Sainduneko zubian eta ondotik, mus eta partxisean ariko dira. 17:30ean jokoak egiten dituzte eta 18:30ean erromeria izanen da Elizagoien Ahizpen eskutik. 21:00etan afaria egiten dute eta trikitilariak afalondoa alaituko dute.

### IRAILAK 25, ASTELEHENA

09:00etan gosaldutik, antolatzaileek



ARGAZKIA: ITSASO ELIZAGOIEN

Azken prestaketetan ari dira pastorealean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Bestak giro paregabean

Bertze urte batez giro ederrean joan dira Andremari bestak. Orokorrean eguraldia lagun izan da eta jende aunitz hurbildu da bestetako ekintzetan parte hartu eta hauetaz gozatzen. Inoiz ez bezala, aurten, azken eguneko Asauko txartel guztiak agortu ziren eta jendea txartelik gabe gelditu zen. Nabari da urtetik urtera indar gehiago hartzen ari den besta dela.

karpa desmuntatu eta zubi ingurua txukunduko dute bestari akaberramete.

Aipatu, irailaren 14ko afarira edo 24ko bazkarrira joan nahi duenak 948 635134 edo 948 635110era deitu behar duela irailaren 10a eta 17a baino lehen.

### Turismo bulegoa

Urtero bezala, turismo bulegoa zabalik egon da udako hilabeteetan. Jende aunitz hurbildu da informazio eske eta inguruan zer ikus daitekeen gomendio bila. Bartzelona, Madril eta Valentziatik etorri da jende gehien, nahiz eta Euskal

Herriko turistak ere egun-pasa egin duten herrian.

Orokorrean denei herria aunitz gustatzen zaie, eta eliza barretatik ikus-teko aukera izatea, bertako produktuak erosteko aukerazatea eta erreka freskoetan bainatze-ko aukera edukitzea ere bai.

**ANTZUZELAI**  
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertazak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

**USOA**  
Nekazari kooperatiba  
T. 948 635 214  
ETXALAR

• Pentu ekologikoak  
• Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

**ZONALDEKO FORCE CAM BANATZAILEA**



## ARANTZA

KULTURA → IRAILAREN 9AN

# Urteroko besta antolatu dute Eguzkialdeko auzotarrek larunbat honetan

Herri-kirolak, bazkaria eta dantzaldia izanen dituzte

## Nerea ALTZURI

Dena prest dute Eguzkialdea auzoan. Larunbat honetan, irailak 9, auzotarrek besta eguna prestatu dute hondarreko urteetan bezala eta besta guneari azken ukituak ematen ari dira egun hauetan.

12:00etan altxaferoa botaz hasiko dituzte bestak. Ondotik, herri-kirol saioa izanen da eta tartean, sokatiran erreban-txa. 14:00etan bazkaria egingen dute eta arratsaldez Beñat Mitxelena eta Fernando Otano musikariek dantzaldia izanen da. Pintxoak ere izanen dira ilunabarrean.

Eguna osotua da eta ederki pasa!

## Ikasturte berria

Irailarekin batera, bertze ikastetxe aunitzetan bezala, abian da ikasturte berria herriko eskolan. Irailaren lehenean hasi dute irakasleek eta aste honetan, berriz, udako oporren ondotik, ikasleek ere abiatu dute ikasturtea. Hamar ikasle berri hasi dira, horietatik bat 4 urtekoen gelan sartu dena, Itsaso, eta bertze bederatzia 3 urtekoen gelan daudena: Beñat, Jare, Juri, Oier, Izei, Ioritz, Inge, Larraitz eta Izaro.

Hilabete honetan goizez bakarrik izanen dira eskolan eta jantoki zerbitzua ere izanen dute.

Pelle-Tiki Haur Txokoan ere aste honetan hasi dute ikasturtea. Etxekotze prozesuarekin, lau haur hasi dira: Ibai, Maren, Kattalin eta Xuban.



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXE, MAIXE OSKOZ, IGOR UGALDE.

## Heldu den urte arte, bestak!

Mentxu Peña alkatearen eta Idoia Altuna bestatoko kartel irabazlearen hitzen ondotik, Aranibarko Joxe Mari Ordoki eta Eguzkialdeko Simonenbordako Xalbador Madariagak botatako altxaferoekin hasi ziren bestak abuztuaren 14ko eguerdian. Lau egunez ekitaldi azkarki izandu ziren: dantzari gaztetxoaren emanaldia, dantza luzea, herri bazkaria, elkartasun afaria, haurren herri lasterketa, jokoak, puzgarriak, buruhandi eta erraldoen kalejira, pilota partidak, herri kirolak, plazako musika giroa, kantu-potea, bertso saioa, auzoetako afariak... Ortziralean, atsedean tiki bat hartu eta larunbatean, abuztuak 19, urteroko hitzordua izan zen Arantza Rock-ekin. Eguzkialdeko besta antolatu zuen Gazte Asanbladak. Eguzkialdeko hasita, giro paregabea izan zen: aperitifa, bazkaria, Polekelekerekin kalejira... Arratsean kontzertuak izan ziren, eta tartean boletoen zozketa: Aterpe, Pabloenea, Primi eta Burlada jatetxeetan otorduak zozketatu zituzten eta hauek izan ziren zenbaki sarituak: 601, 1.264, 991 eta 1.345. Sarituek hilabete bateko epea izanen dute agertzeko. Antolatzailak esker-erak eman nahi dizkiete lagundu duten guztiei eta Arantza Rockera hurbildutakoiei.



ARGAZKIA: AITZIBER ALBERDI

## Oihana eta Jonen emanaldia

Aterpeko terrazan egindako udako kontzertuen denboraldia borobiltzeko, Oihana Amoros eta Jon Mazizior herriarrek emanaldia eskaini zuten abuztuaren 25ean.


**SUKALDEKO ALTZARIAK**  
**ARMAIRU ENPOTRATUAK**  
**KOLTZOIAK - ETXETRESNAK**

Erakusketa Berau etxean


**BORTZIRI**  
**UNSIÖN ANAIK**

Erakusketa: **Berau Etxea** LESAKA Nafarroa  
**T. 948637266 M. 607226891**  
**bortzirialtzari@telefonica.net**

**ERREKALDE**  
**OSTATUA**

**PLATER KONBINAUAK**  
**PINTXOAK**  
**BOKATAK**

IFB0A: 948 630 259  
**BERA**



GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

## Piedadeko auzotarrek besta eguna izanen dute irailaren 9a

Bazkaria eginen dute Iñarreko gainean



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urteak badituzte Piedadeko auzotarrek besta hau ospatzen.

### TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz, Piedadeko besta ospatu dute auzotarrek larunbat honetan, irailak 9. Beti bezala, bazkaria eginen dute Iñarreko gaineko aldean, betiere eguraldiak laguntzen badu.

### Ikasturte hasiera eskolan

Udako oporrak bukatuta, asteazken honetan itzuli dira ikasgela herriko eskolan hasi diren 52 ikasleak. Horien artean, lau dira aurtien lehenbiziko aldiz eskolara joanen diren hiru urteko haurrak: Xuban, Maddi, Alaitz eta Markel.

Jantoki zerbitzua ere ikasturtearekin batera hasi dute eskolan, eta ekainera bitarte bertan bazkaltzeko aukera izanen dute neska-mutikoek.

### Bestetako prestaketak

Sanmigeletako prestaketek ere aitzinera segitzen dute. Aurtien bestak irailaren 28tik urriaren 1era izanen badira ere, beti bezala, aitzineko asteburuan ere izanen dira ekitaldiak, irailaren 23an eta 24an.

Egitarauaren inguruko xehetasun gehiago Ttipi-Ttaparen hurrengo alean izanen badituzue ere, jakin, irailaren 23an, bakarriketa-afaria eginen dela Baratzondon eta joan nahi duenak txartela irailaren 17a baino lehen hartu beharko duela La Villan eta Bibiden. Zizka-

mizkak, zopa, oilasko errea, postrea, kafea eta kopa 20 eurotan sartuko dira. Bertzalde, bakarriketan ariko dena El Hormiguero saioko gidoilaria izanen da. Saio erdia euskaraz eta bertze erdia gaztelaniaz eskainiko du.

Bertzalde, bestetako herri bazkaria urriaren 1ean eginen da Baratzondon, 14:00etan. Sagardotegiko menua eskainiko dute eta horrez gain, Sustrai Colina eta Andoni Egaña ariko dira bertsoetan. Txartelak La Villan eta Bibiden erosten ahal izanen dira 28 eurotan, irailaren 24a baino lehen.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Nerea Begino Mendiburu herritarren argazkia saritu dute

Baztanen egiten den pirinioar behi-azienda lehiaketa enkante nazionalak 30. edizioa beteko du udazken honetan. Aitzakia horrekin, lehen aldiz pirinioar behi arraza eta bere ingurua izeneko argazki lehiaketa egin dute. Abuztuaren 3an jakinarazi zituzten saridunak eta 400 euroko lehenbiziko saria herriko Nerea Begino Mendibururen *Birramona* argazkiak eskuratu du.

**CASAS IPARLA**

Bungalow eta neurrira egindako etxe nordikoak

Ubela Pol. 4 | 31780 BERA | M. 636 069 754

**Goieko** INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**DESIN BERA**

DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK

Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

**F. LANCHAS**

Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781



# SUNBILLA

OSPAKIZUNA → BAZKARIA, MUSA ETA MUSIKA

## Ulibeltzak elkarteko besta irailaren 16an ospatuko dute

Txartelak  
Fonda edo  
Bustitzen

**Maider PETRIRENA**

Ulibeltza Elkarteak besta egun polita antolatu du irailaren 16rako, larunbaterako. Goizeko

10etan mus txapelketaekin emanen diote hasiera egunari, 14:00etan bazkaria eta ondotik musika izanen dute. Txartelak 33 euroren truke eros daitezke Fonda ostatuan, irailaren 11ra arte eta Bustitzen irailaren 3ra arte.



ARGAZKIA: M.PETRIRENA

### Partaidetza handia VI. Kronoigoeran

Abuztuaren 5ean jokatu zen Arretzekobordako kronoigoera. 28 haur koxkorrek parte hartu dute aurten eta zaletasuna mantentzeko 3 kasko zozketatu dituzte beraien artean. Helduetan lasterka Leire Sanzberro eta Iñigo Arrieta izan ziren irabazleak. Bizikletan emakumezko bakarrak parte hartu zuen Bitxori Juanikotenak, eta gizonezkoetan berriz ere lehenengo postua Xabier Irazokik lortu zuen bere errekorra hobetuz. Ezin ahaztu beteranoak ere, tartean zen berriz ere Esteban Maritxalar. Zorionak denei eta eskerak antolatzaileei.



ARGAZKIAK: JOSETXO APEZTEGIA, AITOR IBARRA, IRUNE AGUIRRE ETA MAIDER PETRIRENA

### Ezin hobeki joan dira herriko bestak

Eguraldi ederrarekin eman zioten hasiera beste abuztuaren 10ean. Suziria bota baino lehen kartel lehiaketako sari banaketa egin zuten eta haurretan Beñat Iriarte eta helduetan Bixente Ibarra izan ziren irabazleak. Pilar Martinezek bota zuen suziria, 39 urtez herriko medikua izan delako eta omenaldi tiki bat ere egin zioten. Abuztuaren 11n gaiteroen argi soinuekin hasi eta ondotik meza nagusia izan zen. Dantzariek ere urteroko emanaldia eskaini zuten eta akitutakoan luntxa. Arratsaldean parte-hartze handia izan zen toka, aitzur eta zartagin tiraketan. Hauek izan ziren sailkapenak: Tokan (1. Maialen, 2. Adela eta 3. Oier), Zartaginarenkin (1. Agurtzane, 2. Edurne, 3. Txus) eta aitzurrarekin (1. Aritz, 2. Daniel eta 3. Mikel). Ondotik Txamukos taldearekin dantzan eta kantuan ibiltzeko aukera izan zen plazan, akitutakoan su artifizialak eta kontzertuak. Larunbatean kirolak hartu zuten protagonismoa, Ulibeltza Elkarteak antolatzen duen Herri Krosa, Ramon Latasa sari-keta eta zumba saioarekin. Igandean, berriz, peñen eguna izan zen eta eguraldia lagun, giro aproposa izan zen ura ura eskean ibiltzeko. Sukaldaritzako trebezia ere erakutsi zuten herritarrek: tortilla txapelketa Juana Mari Mariezkurrenak irabazi zuen eta postreena Ander Apeztegiak. Ondotik pintxo eta sagardo dastaketa izan zen eta giro paregabea. Beste bukaera emateko haurrak jokulandiaz gozatzeko aukera izan zuten eta mus txapelketa ere izan zen Ulibeltzak elkartearen. 21 bikotek parte hartu zuten eta Niebes eta Koro izan ziren irabazleak.

**Lizun**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**Manterola**  
Tekniko Instalazioak

ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa

**629 449 602**



HEZKUNTZA → IKASTETXE GUZTIETAN

## Ikasturtea hasi aurretik hainbat mantentze lan egin ditu Udalak

### Jangela zerbitzua hasieratik eskainiko dute

**Marga ERDOZAIN**

Irailarekin batera ikasgeletara itzultzeko ordua ailegatu da gure ikastetxeetan ariko diren 500 ikasle baino gehiagorentzat. Goiztiarrenak Askin Haur Eskolakoak izanen dira, irailaren 5ean mantalak jantzi eta ikasturteari hasiera emanda. Ondotik, irailaren 6an haur eta lehen hezkuntzetako ikasleek eta DBHko ikasleek ikasge-

lak beteko dituzte. Aurretik ikasturte hasiera bateratu izanda, lehendabiziko egunetik jangelako zerbitzua martxan egonen da.

Ikastetxetako pertsonak jeitsiak egon diren bitartean, Udalak mantentze lan garrantzitsuak egin ditu. Askinen pintaketa lanak egin eta jolastokia handitu du, berdegunea handituz. Lan hauetaz gain, 80 leiho berri paratu dituzte San Miguel ikastetxean. Ttikien parkean ere itxitura eta berdegune bat egokitu da (bertan arearekin jolasteko parkea edo txokoa



UTZITAKO ARGAZKIA

### Ikusmin handia piztu dute laxoa partidek

Uda honetan, laxoa partidek eta entrenamenduek Bear-zana plaza gunere berezia dela erakutsi dute. Abuztuaren 26an jokatu zen Doneztebeko 5. Torneoa eta Almandoz, Etxebeste, Sapuppo eta Belarrak lortu zuten garaipena. Arras giro ona eta jende aunitz bildu zen plazan. Egun horretan, laxoarekin lotutako bisita gidatu berezia ere eskaini zuten eta arrakasta handia izan zuen. Bear Zana plazaren inguruko azalpenak hartu zituzten, laxoa jokoaren ezaugarriak... eta finaleko partida Kasinoko balkoitik ikusi ahal izan zuten. Helduak soilik ez, haur eta gaztetxoak ere gogoz aritu dira laxoan Udako txapelketan. Orain, udari bukaera emateko txapelketako finalak irailaren 17an jokatuko dituzte.

kokatuko da). Sukaldean ere txukunketa eta elektrizitatean hobekuntzak egin dituzte. Udaletxeko langileak eta garbitzaileak ere bu-

ru-belarri ibili dira ikasgelak eta jolastokiak atoko-atoko egon daitezzen. Lan bikaina egin duzue, orain irakasle eta ikasleen txanda da!

### FLASH

#### IKA euskaltegian izen-ematea

2017-18 ikasturteko matrikula epea zabalik dago irailaren 29ra arte. Klase presentzialak edo/eta online edo autoikaskuntzaren bidez eskaintzen dituzte. Interesatuak euskaltegira deitu edo idatzi dezakete. Ikastaro hauek Malerrekako Mankomunitatearen laguntza dute.

#### Musika eskolan matrikula zabalik

Agorreta Musika eskolan izen-emateko bigarren epea irailaren 15era arte egonen da zabalik. Interesatuak 11ra arte 636669750 telefonora deituz edo [esmusidoneztebe@gmail.com](mailto:esmusidoneztebe@gmail.com) helbidera idatzita matrikula egiten ahal dute. Irailaren 11tik 15era Agorretako bulegoazabalik egonen da 11:00etatik 13:00etara.

#### Ene Kantak taldea irailaren 16an

*Astonauta* emanaldia eskainiko dute 18:00etatik aitzinera Kiroldegian. Sarrerak 6 euroren truke eros daitezke Donezteben (Ostiz), Elizondon (Pantxika), Lesakan (Legarra) eta Beran (Agara).

#### Basurde Peñaren besta 16 eta 17an

Larunbatean 10:00etan izena eman eta 12:00etan ibilbidea egingen dute. Ondotik, herriko ostuetan poteoan ibiliko dira eta gero bazkaltzera joanen dira. Arratsaldean musika eta iluntzean poteoa izanen dute. Igandean 10:00etan ibilbidea egin eta 12:00etan hamaketakoa eginda akitu dute besta.



 Alex Gaztelumendi.com

EZKONTZETAN ESPEZIALIZATURIKO ARGAZKILARIA

ARGAZKI ERREPORTAJE NATURALAK, EZBERDINAK ETA DIBERTIGARRIAK

 615 747 028

[WWW.ALEXGAZTELUMENDI.COM](http://WWW.ALEXGAZTELUMENDI.COM)





## ZUBIETA

BESTEN ERREPASOA → ABUZTUAREN 14TIK 18RA

# Arbolaren bueltan festa giroa nagusitu da herrian

Azken egunean herri kirol desafio inprobisatua ere izan zen

## F. ETXEKOLONEA/I. ZUBIALDE

Momentu hunkigarriak, barreak, erokeriak... denetarako tokia izan da aurtengo Amabirjinetan.

**Festa bezperan,** Luis Mari Esartek aspaldian burutan zeukan ideia gauzatu zuen; arbolan joaldun baten talla egitea. Goizeko zortzi eta erditako hasi zen lanean eta arratsaldera arte aritu zen jo eta ke. Gauerdian erraz altxatu zuten arbola eta ondotik, herriko argiak itzali eta joaldunak suzirikin egin zuten agerraldia plazan, jaipei hasiera emanaz.

**Amabirjin egunean,** bost buruhandi eta bi erraldioen aurkezpen ofiziala egin zen. Joaldunen laguntzaz, herriari buelta eman zieten. Gero, plazan, Juanita Ibarri omenaldia egin zioten, aurtengo urtarilean 85 urte bete dituen herriarrari. Juanita Kokotxea etxean jaio zen eta Dendarinea etxera ezkondu zen, Pedro Mutuberria-

rekin eta sei seme-alaben ama da. Ohorezko aurrekua dantzatu zioten eta ondotik Udalak brodatutako zapia eta lore sorta bat oparitu zizkion. Omenaldiaren ondotik, aizkora apustua izan zen eta bertan, herriko bi aizkolari handiren erakustaldia izan zen lehenik, Miguel Mindegia (68 urte) eta Antonio Jaurarenarena (62 urte) hain zuzen. Ikusleen txalo zaparrada jaso zuten bi aizkolariak.

**Hirugarren egunean,** kros herrikoiak eta pilota partidek ikusmina piztu zuten eta arratsaldean muserako eta sukaldaritzarako tartea izan zen. Hamabi tortilla aurkeztu zituzten eta irabazlea Petrixenea etxeko gaztetxoena izan zen, berriz, bigarren postua, Arantxik eskuratu zuen. Lehenbiziko postre lehiaketan 13 postre aurkeztu ziren eta lehendabiziko postua Loretok irabazi zuen, bigarren postre goxoena Antxonirena izan zen.

**Laugarren egunean,** haurrak izan ziren protagonistak eta **besten azken egunean,** herriaren eguna izan zen.



## Ba al zenekien

Zubietako Dantza Luzea berreskuratzeko asmoa dagoela eta Euskararen Egunean dantzatu. Igandero 17:00etan eginen dira entseguak herriko es-talpean. Animatu zaitetzte!



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Abuztuaren 14tik 18ra ez zen aspertzeko tarterik izan.

Festek inprobisaziorako tartea ere uzten dutela erakutsi zuten herriarrek, egitarauan halakorik jartzen ez bazuen ere, guraso eta guraso ez direnen artean herri kirol saioa egin zuten eta. Gaueko ordubi terdietan, Antonio Jau-

narena aizkora hartu eta arbolari koska egiten hasi zen, Markos Juanikorenarena eta Pello Santes-tebanek arpanaz arbola botatzen akitzeko. Arbola bitan moztu eta bizkar gainean hartuta plazatik atera zuten, beste bukaera emanaz.

## Heriotza

Festa ondorenak, izan du gazitik ere. Abuztuaren 19an, 101 urterekin, Tomasa Gorosterrazu Ezkurra, Domintxenea etxeko gure artetik joan da eta. Goian bego eta doluminak familiari.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Tallon-Gavarnie ingurura ateraldia egin dute 14 herritarrek

Azken urtetako ohiturari eutsi eta festa aurretik mendiko oinetakoak jantzi zituzten 14 herritarrek. Tallon-Gavarnie ingurua bisitatu eta ongi egin zuten buelta.



OSPAKIZUNAK → URTEROKO HITZORDUA

## Joareen pulunpa soinuak nagusi izanen dira irailaren 23an



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kañamares eta Mindegia nor baino nor ariko dira aizkoran

### Arkaitz MINDEGIA

Irailaren 23an Joal-dunen Eguna ospatuko dute Iturenen. Goizetik gauera arte, ongi pasatzeko aukera izanen

da.10:00etan joaldunak eta herriko trikitilariak ibilaldia egingen dute baserri. 14:00 aldera Julen Kañamares eta Mieltxo Mindegia-ren arteko aizkora apustua hasiko da eta ondotik, Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertsolarien saioaz gozatzeko aukera izanen da. 15:00 aldera bazkaria izanen da

Haur, gazte zein helduek gozaten duten eguna izaten da.

herriko plazan eta arratsaldean eta gauetan Salaberriren eskutik dantzaldia.

### Ikasturte berria

Aurten 6 neska-mutiko berri hasiko dira Iturengo Pulunpa eskolan. Nerea Altzu, Mairi Irigoien, Anuk Erregerena, Mara Mariezkurrena,

Aitzol Vera eta Irati Perurena.

### Pandereta eta trikitixa ikastaroa

Oporren ondotik martxan jartzeko ordua da eta Mendaur trikitixa eskolak dagoeneko ireki du pandereta eta trikitixan apuntatzeko martxak epea. Irailaren 9a

baino lehen eman behar da izena. Ikasturtea urrian hasi eta maiatza bitarte izanen da.

### Bestetako bilerak

Hilabete pare bat falta bada ere dagoeneko Aurtizko bestetako egitaraua prestatzeko bilerak egiten hasiak dira herriko gazteak.

**1. faseko azken etxe eta lokalak SALGAI!**

## ETXEBIZITZA BERRIAK **DONEZTEBE**

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin

**KOKAPENA MOURGUES IBILBIDEA**

- ✓ **RURAL KUTXA**ren babes eta laguntzarekin
- ✓ Salmenta zuzena: **PROMOTOREAK GARA**
- ✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin %15eko desgrabazioa errenta aitortuarekin

**135.000€**tik aurrera  
Informa zaitez

**EZKAIN ERAIKUNTZAK**  
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

**629 951 170**





## OIZ

BESTAK → IRAILAREN 8TIK 10ERA

# Amabirjinaren egunean hasi eta besta giroa asteburuan



UTZITAKO ARGAZKIAK

Maia eta Arzallus bertsolariek girotuko dute igandeko herri bazkaria

**TTIPI-TTAPA**

Hiru eguneko bestak antolatu dituzte Oizen. Irailaren 8tik 10era arte kirola, musika, jan eta edanak, dantzak... izanen dira nagusi plazan eta ostatuan:

**ORTZIRALEA, IRAILAK 8**

- 11:00 Altxaferoak bes-tei hasiera emateko eta ondotik karrikarronda.
- 11:30 Meza nagusia eta ondotik luntxa Herriko Ostatuan.
- Goizez eta arratsaldez puzgarriak.
- 17:00 Pilota partidak herriko gazteen artean. Akitzeko, Grand

Prix-a.

- 21:00 Zopak Herriko Ostatuan.
- Arratsaldez eta gauetz dantzaldia Franzisko akordeoilariarekin.

**LARUNBATA, IRAILAK 9**

- Goizean karrikarronda trikitaliarekin.
- 11:30 Mus txapelketa Elkartetxean.
- 12:30 Herriko gazteen arteko Laxoa partidak.
- Goizez eta arratsaldez puzgarriak.
- 17:00 Haur jokoak eta txokolate jana.
- 21:00 Patata tortilla lehiaketa eta herritarren arteko afaria.
- Arratsaldez eta gauetz dantzaldia Xarma taldearekin.

**IGANDEA, IRAILAK 10**

- Goizean karrikarronda trikitaliarekin.
- 12:00 Aizkora apus-

Herritarrek izanen dira protagonista bertze urte batez.

tua: Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria eta Migel Angel Etxeberria, Zubietako Palaxio eta Ezkurrako Moises Gogortzaren kontra.

• Goizez eta arratsaldez

puzgarriak.

- Eguerdian herri bazkaria bertsolariekin (Jon Maia eta Amets Arzallus).
- Bazkal ondotik toka txapelketa.
- 21:00 afari herrikoia

Elkarteko kideek antolatuta.

- Arratsaldez eta gauetz dantzaldia Salaberrimusikariaren eskutik.
- Gauerdian bestak heldu den urtera arte agurtuko dituzte.

**OIZKO UDALA · NAERBOZ**

Oizko Udalak besta zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitari guziei

**OITZEKO OSTATUA**

ongi pasa bestak!

Eguneko menuak, asteburuko menuak, menu bereziak (enkarguz), plater konbinatuak, bokatak eta errazioak.

**Irailaren 9an zopak. Erreserbak egin daitezke.**

Karrika bakarra, 43 · T. 948 11 05 66 · 31751 Oiz

**EZPELURA** ITURGINTZA

Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak  
Elektrizitatea • Zoru bero emaila  
Biomasa • Aerotermia

T. 606 337 427 | OIZ  
info@ezpelura.com  
www.ezpelura.com



**BESTAK** → IRAILAREN 7TIK 11RA

## Urteroko osagaiak pesta giro borobila osatzeko

Bankako abeslariak eta Seguiolaren txisteez girotuko dute herri bazkaria

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 7tik 11ra ospatuko dituzte Eratsungo bestak eta iazko egitarauari egun bat gehiago gehituz bost eguneko proposamen dotorea osatu dute.

### ASTEAZKENA, IRAILAK 7

• 21:00 pesta bezperako afaria.

### OSTEGUNA, IRAILAK 8

- 09:00 Txupinazoa eta diana.
- 11:30 Meza nagusia eta ondoren luntxa herriko plazan.
- 12:30 Aizkora apusua: Oier Kañameres eta Migeltxo Mindegia, Ander Erasun eta Palaxioren kontra.
- 18:00 Lau t'erdiko pilota partidak: Olaizola I.a eta Otxandorena, Olazabal eta Eskuderoren kontra.

• Gaez eta arratsalde dantzaldia Oihana eta Oihana soinu-joleekin.

### OSTIRALA, IRAILAK 9

- 11:00 Mus txapelketa eta sari banaketa.
- Goizez eta arratsalde haurrentzako jokoak.
- 18:00 Berdintasunaren aldeko zumba saioa.
- 20:00 Puro Relajo mariatxi taldearen kantaldia.
- Gaez dantzaldia Endara DJ-aren eskutik.

### LARUNBATA, IRAILAK 10

- 12:00 Etxez etxe kalejira Ilunberriko txarangarekin.
- 14:00 Herri bazkaria Bankako abeslariarekin eta Guillermo Seguiola txiste kontalariarekin.
- 17:30 Jotak Voces Navarras taldearen eskutik.
- 19:00 Doneztebeko dantzariak.
- Arratsalde eta gaez dantzaldia Endara DJ-aren eskutik.

### IGANDEA, IRAILAK 11

- Goizez eta arratsalde puzgarriak herriko plazan.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Haur, gazte zein helduk primeran pasatzeko aukera izanen dute bost egunez.

- 12:00 Tortilla txapelketa eta postre txapelketa.
- 13:30 Tortilla eta postre txapelketaren sari banaketa.
- 14:00 Paella eta tor-

- tilla bazkaria plazan.
- 16:00 Ipuin kontalaria Txefo eta Anduriñaren eskutik.
- 18:00 Pilota partidak. Lau t'erdian: Salaberria eta Apezetxea.

- Binakako partidak: Elizalde eta Olaizola, Urbietta Gorrotxategiren aurka.
- Arratsalde dantzaldia Oihana eta Oihanarekin.

**Erantsungo Udalak**  
besta zoriontsuak opa dizkizue

**Bidasoa**  
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA  
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

**ORBELA**  
SENDERISMOA

BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel  
Tel. 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN  
orbela@alberguesnavarra.com  
www.orbela-beintza.com



# ARKUPEAK

GIZARTEA → URTE ERDIKO BALANTZEA

## 1.937 bazkidek parte hartu dute abuztura arteko bidaietan

Arantzazu, Gaztela, Lezo eta Lanzarote dira hurrengo bidaiak

**Fernando ETXEBERRIA**

Zuzendaritza batzordeko kideek bilera egin zuten abuztuaren 2an eta bertan Elkarteko kideentzat garrantzitsuak diren zenbait gai landu zituzten.

Eguberrietako loteria kobratzeko iaz izan ziren arazoak konpondu dituztela jakinarazi dute eta Caixabankeko edozein bulegok emanen du aukera. 52.000 euro editatu dira aurren, 40.597 eta 80.143 zenbakiei dagozkienak.

Boletina hobetzeko helburuarekin Martin Urrutia Saldiasoko ordezkariak zenbait proposamen aurkeztu zituen: azaleko argazkiak ez errepikatzea, orrialde berean jartzea informazioa bi hizkuntzetan...

Orain arteko bidaia eta ateraldien balorazioa ere egin zuten eta emaitzak positiboak dira, superabitarekin: 1.973 bazkidek parte hartu dute bidaietan eta 302k mendi irteeretan.

**2018KO BIDAIK**

2018ko bidaiak ere zehaztu dituzte eta urterokoekin batera, badira berriak: Leon eta inguruak, Teruel, Albarracín eta Cuenca, Alpefrantsesak eta kostaldea eta itsas-bidaia Mediterraneoan barna.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

### Mendizaleak Urdazubín

Uztailaren 18an 52 mendizale elkartu ziren Urdazubiko plazan Axularren barna ibilaldia egiteko. Bidean milaka urteko haritz ikusteko modua izan zuten. Loiaran hamaiketako egin eta Urbia zeharkatuta Kaminoko borda eta Gainerkolan barna Urdazubira joan ziren bost orduko ibilaldia osatuta. Ondoren Otxondo jatexera joan ziren bazkaltzera. Parte hartzaileek antolatzaileei eskerrak eman zizkieten bidea egokitu eta garbitzeko egin zuten lanagatik.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

### Aralarren San Joakin eta Santa Ana ospatuz

Aitatxi-amatxien patroiak ospatzeko 171 bazkidek Aralar bisitatu zuten uztailaren 26an. Gero Gorraizera joan ziren bazkaltzera eta zazpiak arte dantzan aritu ziren.

## URROZ

HITZORDUA → ABUZTUKO HIRUGARREN ASTEBURUAN

## Leurtzan bazkari legea egin dute gazteek

**Jaione ARIZTEGI**

Bertze urteetan abuztuaren lehen asteburuan egiten bazen ere, aurtengoan hirugarrenean egin da.

Goizean, mendi itzulia egin zuten gazte batzuk herriko mendietan

barrena, eta ondotik, bazkaria izan zen. 32 lagun bildu ginen eta egun polita igaro genuen, bazkal ondoa trikitixa eta panderetaz alaitua izan zen, eta afaria ere egin zen bertan. Ea urte aunitzez holako eki-



taldiak egiten segitzen dugun herrian.

### Landetxeak beterik

Uda sasoi izanik, herrian bizitasuna nabaritzen da, Leurtzako urtegieta igotzen di-

renez gain, herriko landetxeak beterik izan baititugu udan, eta erran beharrik ez dago, bisitarien etorrera horrek gauza on ezberdinak ekartzen dizkiola herriari.

### Ehiza garaia hurbil

Ehiza garaira hurbiltzen ari garela eta, presatuta lanetan hasiak dira herriko ehiztariak irailaren 2 eta 3an postuak konpontzen pasatu zuten.



ARGAZKILARITZA → IRAILAREN 12 ARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK

# III. Argazki lehiaketa abian da Erran.eus atarian

Sari dotoreak eskuratzeko aukera izanen da

## TTIPI-TTAPA

Irailaren 12ra arteko epea dute ERRAN.EUS-ek antolatzen duen argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek.

16 urte baino gehiago izan behar da eta Ttipi-Ttapa zabaltzen den eremuan sortu izan edo bizi behar da. Gainera, argazkiek ere eskualdean ateratakoak izan behar dute, lekua zehaztuz, eta aitzinetik ezin dute bertze inon argitaraturik izan. Koloretan edo zurri-beltzean aurkez daitezke eta 300 px-ko bereizmena eta 30x20 zentimetroko gutxienerokotamaina izan behar dute.

ERRAN.EUS-en artxi-boan gordeko dira argazkiak eta antolatzaileak beretzat gordeko du jasotako lanak argitaratzeko eskubidea.

Epaimahaiaren saria, Haitzalde Landetxean, Mutrikun, 2 lagunendako 2 gau eta 2 gosarik egonaldia izanen da.

Erabiltzaileen saria ere izanen da, Nafarroa Oinezeko lotea. Horretarako, ERRAN.EUS-eko erabiltzaileek bozkatzeko aukera izanen dute irailaren 12tik 26ra arte.

Irabazleak urriaren 5ean jakinaraziko dira ERRAN.EUS atarian eta sari-banaketa urri hasieran izanen da. Parte-hartzaileen artean ere Donamariako Bentan 2 lagunendako otordua zozketatuko da.

**Profila: CONSERVADOR**

ARRISKU ESKALA  
TAKIKENA 1 2 3 4 5 6 7 HANDIENA

Gescooperativo Gestión  
CONSERVADOR FI  
ISIN kodea: ES0174349037  
Funtsaren erregistro zk.  
CNMvN: 2463  
Kudeatzailea:  
GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.  
Gordailuzaina:  
Banco Cooperativo Español.

**Profila: MODERADO**

ARRISKU ESKALA  
TAKIKENA 1 2 3 4 5 6 7 HANDIENA

Gescooperativo Gestión  
MODERADO FI  
ISIN kodea: ES0142164005  
Funtsaren erregistro zk.  
CNMvN: 5034  
Kudeatzailea:  
GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.  
Gordailuzaina:  
Banco Cooperativo Español.

## INBERTSIO FUNTS PROFILATUAK

Funtsetan ditugun adituentzat,  
denok dugu profil on bat

**Profila: DECIDIDO**

ARRISKU ESKALA  
TAKIKENA 1 2 3 4 5 6 7 HANDIENA

Gescooperativo Gestión  
DECIDIDO FI  
ISIN kodea: ES0174304032  
Funtsaren erregistro zk.  
CNMvN: 2465  
Kudeatzailea:  
GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.  
Gordailuzaina:  
Banco Cooperativo Español.

**Profila: AGRESIVO**

ARRISKU ESKALA  
TAKIKENA 1 2 3 4 5 6 7 HANDIENA

Gescooperativo Gestión  
AGRESIVO FI  
ISIN kodea: ES0142045006  
Funtsaren erregistro zk.  
CNMvN: 5035  
Kudeatzailea:  
GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.  
Gordailuzaina:  
Banco Cooperativo Español.

Agiri honek izaera komertziala du, eta ez da inola ere, ez eskaintzarik, ez harpidetzarako gomendiorik, ez inbertsio arloko finantzaketa-aholkularitzarik. Agirian dagoen informazioak ez du orotarik kontsultatu behariko duzun lege-dokumentazioa inbertsio erabakirik hartu baino lehen. Bai Funtsaren folioa bai inbertsitzaileentzako funtsezko datuak dakartzan dokumentua, bi-berik, kontsultagai daude Rural Kutxako bulegoetan [www.rural Kutxa.com](http://www.rural Kutxa.com) eta CNMvN. Funtsetako inbertsioen balioa merkatuaren gorabeherari dago lotua. Kudeatzailea: GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C. Gordailuzaina: Banco Cooperativo Español.

**RURAL KUTXA**  
cajaruraldenavarra.com



## EZKURRA

ERREPASOA → ABUZTUAREN 14TIK 19RA

# Giro ederrean joan dira sei egunez luzatu diren festak

Turista kopuruak aurreikuspenak gainditu ditu

**Fernando ETXEBERRIA**

laz baino egun bat gehiago iraun dute aurten go festek. Eta halare ere, gehiagorako gogoz geratu omen dira herritar asko!

Abuztuaren 14an bota zuten festei hasiera eman zien txupinazoa eta herritarren afariak eta dantzaldia izan ziren festen lehenbiziko eguneko osagaiak.

Bigarren egunean, Ortzadar dantza taldeak emanaldia eskaini zuen eta arratsaldean aizkora saio ederra egin zuten Azurmendi eta Arria eta Rekondo eta Mindegia. Dantzarako aukera ere izan zen, goizal-

deko ordubiak arte luzatu zen eta musika.

Hirugarren egunean, mus txapelketan 14 bikotek parte hartu zuten eta arratsaldean haurrentzako ipuin kontalaria izan zen. Laugarren egunean haurrak izan ziren erabateko protagonistak.

Abuztuaren 18an, hirugarren mailako aizkora txapelketa jokatu zen: Xuban Kañamares, Moises Gogorza, Jexux Etxeberria, Emilio Garcia eta Iker Gorriti aritu ziren lehian. Jexux Etxeberria izan zen irabazlea, Xuban Kañamares bigarren eta Moises Gogorza herritarra hirugarren. Josetxo Urrutiak harriekin ere erakustaldia eskaini zuen.

Azken egunean herri bazkaria izan zen frontoian eta 150 lagunetik gora bildu ziren. Bazka-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

## Ermita berritu dute hainbat herritarrek

Hogei bat boluntariok bi asteburutan egin dituzte ermita konpontzeko lanak. Teila-tua erabat berritu dute eta aldarea konpondu eta zati bat margotu. Azpimarratu egin behar da boluntario talde honek herriaren alde egin duen lana.

londoa Txamukos maria-txiek girotu zuten eta kantura animatu zenik ere izan zen.

## Turismoa

Aurreikuspen guztiak gainditu dira udara honetan. Horren erakusle da udako bi hilabeteetan herriko lotarako toki guztiak beteta egon direla. Estatuko turistak eta urrutikoak ere izan dira herrian: Errusia, Holanda, Belgika, Frantzia, Txina eta Ameriketakoak.

## Ehiztarien bilera


Uztailaren 29an Txantxingorri txabolan elkartu ziren ehiza elkar-

teko kideak. Kontuen egoera, elkarteko kideen baja eta altak eta Udalarekin ehiza barrutia erabiltzeko baimena 10 urte gehiagorako berritzeko akordioaz hitz egin zuten, urte horietan 60.000 euro ordainduz tearen truke. Postuetara iristeko bideak berritzea ere adostu zuten.

## Ludoteka

Martxan dago herriko ludoteka. Ateak zabalik ditu bertara joan nahi duen edozeinentzat. Bertan arau batzuk bete beharko dira eta sarre-rako atean zintzilikatu dute araudia. Ludoteka es-

kola zaharreko beheko soilairuko zati batean jarri dute eta kanpotik zehin barrutik itxura aldatuta dago. Kanpoko aldean Mikel Valdesek egindako marrazki ederrak apaintzen du.



F. ETXEBERRIA

Iratoxa margotu du Mikel Valdesek ludoteka atarian.

## Berriemailearen agurra

**Fernando ETXEBERRIA**

Hainbat urtez Ezkurako berriak eta argazkiak Ttipi-Ttapa aldizkaria bidaltzen aritu ondotik, berriemaile izateari uztea erabaki dut. Orain artean, nire borondate onenarekin aritu naiz lanean, bidalitako kronika bakoitzean, herriaren alderdi positiboak nabarmentzen saiatu naiz,

deustarako balio ez duten gai ezkorak eta polemikoak albo batera utziz. Ttipi-Ttapa esku-aldean irakurle gehien dituen aldizkaria dela jakinda, espero dut etorkizunean nire tokia beteko duen norbait izatea, orain artean bezala, Ezkurako herriak aldizkarian bere tokia izaten segi dezan. Agur eta betira arte!

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa  
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

tanatorios  
**IRACHE**

24 ORDUKO TELEFONOA  
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



GIZARTEA → UHARTE ARAKILGO 50. ARTZAIN EGUNEAN

## 17. txapela jantzi du Alustizak Uharte Arakilen

Jai txakurrarekin lortu duen bigarren garaipena da

### TTIPI-TTAPA

Badirudi herriko pestetako Artzain txakur txapelketa beroketa

egokia izan zela Antonio Alustiza eta Jai txakurrarentzat. Abuztuaren 27an Uharte Arakilgo 50. Artzain Egunean erakustaldi polita eskainita Nafarroako 17. txapela jantzea lortu dute eta.

Nafarroako txapelketa gehien irabazi di-

tuen artzaina da herri-  
tarra: 2004an eta 2005ean Argi zakurrarekin irabazi zuen, 2006tik 2012ra Ttikirekin. 2013an Ttikiren ondorengoak diren Bat eta Jairekin lehen bi postuak lortu zituen. Eta 2015 eta 2017an Jairekin lortu du txapela beltza.



UTZITAKO ARGAZKIA

Antonio Alustiza da Nafarroako txapelketa gehien irabazi dituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Kolorez eta umorez gainezka egin du herriak pestetan

Abuztuaren 14tik 18ra bitartean pesta giroa nagusitu zen herrian. Musika, kirola, dantzak, bazkari eta afariak... jendea plaza inguruan biltzeko aitzakia izan ziren. Kuadrillen eguna eta jubilatuen eguna izan ziren beste behin ere jendetsuenak, txarangaren erritmora baiten edo bertso doinuan bestean gustura ibili ziren denak. Dagoeneko heldu den urtekoen esperoan daude!

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Udako merkealdia**

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



## GOIZUETA

GIZARTEA → ABUZTUTIK AURRERA

# Pediatria zerbitzuak ordutegi berria izanen du

Asteazkenetan  
12:30etik  
15:00era

## TTIPI-TTAPA

Goizueta eta Arano-ko osasun haretaz arduratzen den pediatrik Leitzako Osasun Zentroko egoitzan ere ematen du zerbitzua. Orain arte, asteazkenetan 09:00etatik 11:30era egoten zen Goizuetako kontsultan eta bertako lanak bukatzean joaten zen Leitzara. Abuztuan ordutegi berri jarri zuten martxan eta aurrerantzean asteazkenetan 12:30etik 15:00etara egonen da herrian.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Artikutza jendez lepo abuztuaren 28an

Urteroko ohiturari hutsik egin gabe, jendetza bildu zen Artikutzan San Agustin egunez. Batzuk oinez eta besteak kotzez joan ziren bertara eta bai batzuek eta bai besteek, egun-pasa polita egiteko aukera izan zuten artisau postuetan zer-bait erosi, pilota partidak ikusi eta erromerian dantzan arituz.



ARGAZKIAK: F. LOIARTE

## Umore onean hasi eta bukatu ziren fiestak

Aurorok eta umeen egunarekin piztu ziren herrian festarako lehen txinpartak eta txupinazoa lehertu ondoren hasi zen bost eguneko eromena. Txupinazoak gazte egunarekin bat egin zuen eta *desapiyoan* giro polita sortu zen. Pilota partidak, dantzariak, erraldoi eta buruhandien irteerak, sagardo egunak, bakailao lehiaketak... urteroko arrakasta izan zuten. Eta umore onean hasitakoa, Umore Ona Peñaren egunarekin bukatu zen. Abuztuaren 18an eta azken traka indartsu batekin, hurrengo urtera arte agurtu zituzten fiestak.

## GIZARTEA

'Zuk aukeratu zuk dantza egin' lehiaketa arrakastatsua izan da

## TTIPI-TTAPA

Goizueta eta Arano-ko Prebentzio eta Berrintasun Batzordeak antolatuta, *Zuk aukeratu zuk dantza egin* lehiaketaren bigarren edizioa egin zuten festa aurrean. Musikaren bidez tratu onak eta errespetuzko harremanak zabaltzea zen ekimenaren helburua: abesti dibertigarriak, dantza egiteko modukoak, giro ona sortzen dutenak, eta ez erasotzaileak ez direnak biltzea.

15 lagunek parte hartu zuten eta 92 abesti bidali zituzten, horien artean 15 erreplikatuak (Gatibu taldearen *Aske maite*, *aske bizi* abestia sei aldiz aurkeztu zuten).

Parte hartu zutenen artean, sariak zozketatu zituzten eta sari banaketa abuztuaren 22an egin zuten. Irabazlea Larraitz Salaberria izan zen eta Skakeitan eta Manu Chaoren *Lerro Hutsen Artean* abestia aurkeztuta 90 euroko kontzertu baterako sarrerak irabazi zituen. Aizpea Uitzik lortu zuen bigarren saria, Elkar liburu-dendan gastatzeko 30 euroko erosketa txartela, Vull taldearen Zoo abestiaren alde egin da eta Elena Gartziak *A quien le importa* abestiarekin hirugarren saria, Elkar liburu-dendan gastatzeko 30 euroko erosketa-txartela.



OSPAKIZUNAK → GOIZ ETA ARRATSALDEZ

# Taloaren bueltan egun osoko pesta irailaren 17an

### Irrintzi txapelketa antolatu dute estreinakoz

#### JM BARRIOLA

Plazaola Partzuergo Turistikoak eta Udalak elkarlanean antolatu dute Talo Eguna irailaren 17rako. Goizeko hamarretan irekiko da azoka eta bertan artisauen postuak, taloarekin zerikusia duten lanabesak eta zenbait langintza zuzenean ikusteko aukera izanen da. Horiekin batera, tresna zaharrak eta baserriko zenbait animalia ere plazaratuko dituzte eta txikienek gurdian ibiltzeko aukera ere izanen dute. Villabona eta Saralegi talogileek ere ez diote hutsik eginen urteroko hitzorduari eta goiz eta arratsalde, taloak egiten ariko dira. Taloak egiten ikasteko tailerra ere antolatu dute 4 eta 14 urte bitartekoentzat eta eskualdeko talo lehiaketa eta pintxo lehiaketa ere izanen dira. 12:00 etan erakustaldia izanen da plaza eta azokan erosketak egiten dituzten artean bertako produktuekin osatutako saski baten zozketa ere eginen dute. Gainera aurtien estreinakoz irrintzi txapelketa ere izanen da.



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

### Jendetza bildu da plazan santiburtzioetan

Abuztuaren 10etik 15era ospatu zituzten santiburtzioak eta eguraldi onak lagunduta eta asteburua tarteko, aspaldiko jendetsuenak izan ziren. Abuztuaren 11ko Ezpatadantzariet urteroko ikusmina piztu zuten eta abuztuaren 13ko Igualadako Castellersak ere plaza jendez bete zuten.

#### GIZARTEA

Nortasun agiri ofiziala egin edo berritzeko aukera izanen da herrian

#### TTIPI-TTAPA

Urriaren 10ean, azaroaren 10ean eta abenduaren 12an Nortasun Agiri Nazionala berritu edo egiteko aukera eskainiko dute Leitza. Aldez aurretik ordua hartzea ezinbestekoa izanen da eta horretarako interesa dutenek 948012012 telefonora deitu beharko dute eta izena eman. Txanda bakoitzean gehienez 35 laguneko zerrenda eginen dute eta zerrenda bat osatzen denean hurrengo txandetarako hitzorduak ematen hasiko dira. Pasaportea ezinen da hitzordu hauetan berritu.


#### PLAZAOLAKO MARATOA ETA MARATOI ERDIA

### Korrikalariet hitzordua dute Plazaolan iraileko hirugarren igandean

#### JM BARRIOLA

Irailaren 17an, igandea, Plazaolako maratoia eta maratoi erdia jokatuko dira. Bi probetan iazko ibilbidea errepikatuko dute, hau da, maratoia Lekunberritik abiatuko da eta 42 kilometroren ondok Andoinen izanen dute helmuga. Maratoi erdian eginen dutenak, aldiz, Leitzatik abiatu eta Andoingo plazara arte, 26 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Ibilbide osoa Plazaolako Bide Berdean barna eginen dute. Irailaren 12ra arte egonen da izena emateko aukera [www.maratonviasverdes.com](http://www.maratonviasverdes.com) web gunearen bidez.

Lasterketa hauen bidez bertako ingurunearen promozioa eta ezagutza ere bultzatu nahi dituzte. Inguruko udalak eta beste hainbat entitate ari dira elkarlanean eta dortsalen



UTZITAKO ARGAZKIA

Garai bateko trenbidetik barna eginen dute korrika.

zozketa, alojamenduetako promozioa eta beste zerbitzuen bitartez, inguruan dagoen eskaintzaren berri emanen dute.

**MANUELA ARIZTELA**  
Euskal Produktuak **BORDATUA DOAN**

**ESKOLAKO MANTALAK**  
Aukera zabalak!

Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)  
T. 948 61 06 11 - [www.manuelaariztela.com](http://www.manuelaariztela.com)



# BAZTAN

SARI-BANAKETA → ABUZTUAREN 23AN

## 'Bertan egun borobila' saria banatu du Merkatari Elkarteak

Herrian bertan gastatzeko 1.000 euroko saria da

### TTIPI-TTAPA

Udan atsedenerako tarte guti izan dute Bertan Baztan merkatari eta ostalaritza elkarteko kideek. Abuztuaren 5 eta 12an antolatutako Bertan egunarekin batera, zozketa berezia antolatu zuten abuztuaren 5etik 12ra bitarte erosketak egin dituzten bezeroak sarituz.

Abuztuaren 23an egin zuten sari banaketa eta Uhartan bizi den Miren Labayen izan da irabazlea. Elkarteko zuzendariaren eta idazkariaren eskutik jaso zuen egun borobilaz gozatu ahal izateko bono sorta. Horretaz gain, Baztango zaporeak elkarteko kideen eta artisaunen produktuekin osatutako loteak eta aseguru baterako 100 euroko deskontua lortu ditu irabazleak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertan Baztan Merkatari elkarteko ordezkariak eman zioten saria irabazleari.



ARGAZKIA: ONDIKOL.

### Blues doinuak ekarri ditu Elizondora Txuri ta Beltz festivalak

Festivalaren bigarren edizioa egin zen abuztuko hirugarren asteburuan eta ikusle aunitz hurbildu ziren zuzeneko musikaz gozatzera.

### FLASH

#### Iruritako Dantzari Eguna 16an

Iruritako karririk dantzari beteko dira irailaren 16an, 18:30etik aitzinera.

#### Margo ikastaroko lanak ikusgai

Kanpoko margo ikastaroen ikasleen lanak ikusgai jarri dituzte Arizkunenea Kultur Etxeko lehenengo solairuan irailaren 10era arte.

#### Artearen Ibilbidearen azken txanpa

Bertze urte batez, Artearen Ibilbideari esker, margolan eta eskulturen erakustoki izan dira Baztango hainbat bazter. Erakusketa gehienak itxiak baldin badira ere, oraindik bada aukera Elizondora. Ana Mari Marinen margoak irailaren 17ra arte Bergarenean ikusgai egonen dira egunero. Jose Luis Alzugarainen margoak Jaime Urrutia karrikako 3. zenbakian egonen dira hilaren 17ra arte, ortzegunetik igandera.

#### Piriniar arrazako behien lehiaketa-enkatea

Irailaren 23an eta 24an egingen da aurten 30. edizioa beteko duen lehiaketa-enkatea.

**CARLOS GARAICOETXEA ETXENIKE**  
abokatu



Santiago, 59 2C  
ELIZONDO  
T. 948 581 468  
M. 630 354 818

**zergalan** | asegi  
asesores y consejeros de empresa  
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6  
31 700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [info@zergalan.es](mailto:info@zergalan.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304





**BESTAK → IRAILAREN 13TIK 17RA**

## Ttikienek ere txopoa goratuko dute Elbeteko bestetan

Paella eta zikiro jateko txartelak irailaren 10era arte egonen dira salgai

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 13tik 17ra arte ospatuko dituzte Elbeteko bestak. Mahaiaren bueltan bilduta baztan zopak, paella jana, zikiroa... izanen dituzte eta musikak ere toki nabarmena izanendu.

### ASTEAZKENA, IRAILAK 13

- 18:30 Txupinazoa botako dute eta japoniar bonbak.
- 19:00-21:00 Hauspolariet taldearekin dantzaldia.
- 21:00 Baztan Zopak Joxe Angelek girotuta.
- 00:00 Txopogoratzea.
- Ondotik, Joxe Angel Posadan.

### ORTZEGUNA, IRAILAK 14

- 09:30 Dianak.
- 11:30 Meza nagusia.
- Ondotik luntxa.
- 16:00-19:00 Haurren-

dako Puzgarriak eta trenak.

- 17:00 Mus eta partxis txapelketa.
- 19:00-22:00 Hauspolariet taldearekin dantzaldia.

### ORTZIRALEA, IRAILAK 15

- 09:30 Dianak.
- 14:00 Haurren bazkaria Posadan (izenematea Posadan egin behar da).
- 14:30 Paellada frontoian eta postre lehia-keta. (Txartelak Posadan salgai irailaren 10era arte)

- Ondotik Grand Prix.
- 16:00 Aurpegi margo-lariak eta zumba haurrendako.
- 18:00 Txokolate jana.
- 20:00 Ttikien txopogoratzea.
- 21:00 Zingar jatea.
- Ondotik, herriarendako sorpresa.
- 23:30-01:00 Txamukos taldearen eskutik mariatxiak.
- 01:00 Piruleta DJa.

### LARUNBATA, IRAILAK 16

- 09:30 Dianak.
- 14:30 Zikiroa Franxix-

ko soinulariak alaiturik. (Zikiroko txartelak Posadan, Juli eta Karrika ostatueta egonen dira salgai irailaren 10era arte).

- 21:30 Zingar jatea.
- 22:00 Zozketa.
- 23:00-02:30 Gozogo Taldearekin dantzaldia.
- 02:30 Tirri&Tery Jai Alai Guateque.

### IGANDEA, IRAILAK 17

- 09:30 Dianak
- 14:00 Karrikaxarreko Bazkaria.
- 18:00 Baztango Dantzariak.

**ELBETEKO POSADA** ONGI PASA BESTAK!

6 logela bainugelarekin eta egongela bat

- Eguneko menua
- Aste hondarretan karta
- Enpresa otorduak
- Familia bilkurak
- Bataioak ...

Karrikaundi z/g  
**ELBETE**  
T. 948 581 519  
info@posadaelbete.com

www.posadaelbete.com

**Construcciones URBALLO, S.L.** Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

hargin lanak orokorrean

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teiltueta esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuluak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009  
c.urballo@hotmail.com

**Mármoles SOULE HILETA ARTEA**

T. 948 453 444  
M. 688 605 182  
ARIZKUN



## BAZTAN

BILERA → ABUZTUAREN 11N

# Kontzentrazio partzelarioari buruzko batzarra egin dute Anizen

Lur-jabeak eta Gobernuko eta Udaleko ordezkariak

## TTIPI-TTAPA

Orain urte eta erdi Udalak abiatutako gogoealdia jarraikiz Anizen urrats berria eman dute. Abuztuaren 11n Anizko lurren jabeekin batzarra egin zuten Mikel Imazek, Nafarroako Gobernuko nekazal azpiegiturako arduradunak, eta Juan Kruz Iriartek, Baztango Udaleko nekazaritzako eta mendietako zinegotziak.

Harat hurbildutakoei kontzentrazio partzelarioak zer dakarren azaldu zuten Imazek; zer pauso eman behar diren eta bakoitzari nola eragingen

liokeen. Herritarren galderari erantzunez, herri inguruko lur urbanizagariak kontzentrazio kanpo geldituko zirela erran zien. Kontzentrazio partzelario prozesua nekazal etxaldean %70aren babesarekin hasten ahal da. Anizen nahiko aldekoak dira, horregatik, aipatu nekazal etxaldean babesarekin egonez egiten da, beren kezka eta erranak kontuan hartuz. Modu berean, Gobernuko teknikarriaren ustez, 2018ko gobernuaren aurrekontuetan Anizko kontzentrazioarako kontu-saila egiteko aukera legoke.

Aniztarrek batzarra baikor baloratu zuten eta Udalak ere bai.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Espainiako gerran erahil zuten Francisco Mulari omenaldia egin diote Oronoz-Mugairin

Espainiako gerran erahil zuten Francisco Mula Castrori omenaldia eskaini zioten abuztuaren 6an, igande eguerdian Oronozen, Oronoz-Mugairiko herriak eta Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak antolatuta. Omenaldi ekitaldiaren ondotik, oroitarria jarri zuten Francisco Mula eta Concepcion Roca senar-emazteak beraien semeekin bizi ziren Iraolaenearen atarian. Hain zuzen, 1937ko urtarrilaren 25ean aita etxetik eraman zutenean lau urte zituen Ricard Mula Roca semea, emazte, seme-alaba eta bilobekin izan zen ekitaldi hunkigarrian. Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak eta Ricard Mula berak jarri zuten *Stolpersteine* bezala ezagun diren urre-koloreko oroitarria Iraolaenea atarian. AFFNA 38 Nafarroako Fusilatuen Elkarteak Jokin De Carlosek aipatu zuenez, «Nafarroako errepide bazterretan 3.452 pertsonen gorpuak egon daitezke, ezberdin pentsatzeagatik torturatu eta erahil zituztenak» eta horrelakorik berriz errepika ez dadin lan egitera animatu zuen. Bitor Elizagoien bertsolariak bertsoa kantatu zuen eta Koldo Pla historialariak *Adoquines* olerkia irakurri zuen. Unai Torres eta Amaia Garate neska-mutikok Aureskua dantzatu zuten, Maialen Baraibar eta Xabier Marcosek txistua jo zuten bitartean. Ricard Mulari bihotzez eskertu zuen ekitaldia. 84 urterekin, ustez Lantzeko bidegurutze inguruan hil zuten aitaren gorpuzkinen bila segitzen du oraindik.

Amaiurren kontzentrazio partzelarioei buruz egin zen mintzalditik, poliki-poliki pausuak ematen ari dira eta, ho-

rren lekuko, Udalaren eskariz joan den ereiaroan Gobernuko teknikariak Anizerat egin zuten bisitaldia. Ados ba-

daude, Baztan mailako lehendabiziko esperientzia Basaburuko herri horretan egin nahiko luke Udalak.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK  
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK  
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423  
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



**Nafarroako Gobernuak diru laguntzak emanen ditu LEIHOAK eta KONTRALEIHOAK aldatzeko.**





**BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU**





\* 70 mm

**PVC-zko sistema bakarra\* Passive house ziurtagiriarekin BETIKOn daukagu.**

**6 kamara 82 mm-ko profila Merkatuko isolamendurik hobena.**

A+++



TURISMOA → IRAILAREN 18TIK 24RA

## Pintxo, salda eta bustiekin gozatzeko aukera

13 ostatu eta jatetxetan

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 23 eta 24an ospatuko da piriniotar arrazako behi-azien daren lehiaketa-enkante nazionala eta girotzen joateko proposamen berezia osatu dute Udalak eta Aspinak, Baztango ostatu eta jatetxeekin elkarlanean. Hala, iraila-

ren 18tik 24ra bitarte, pintxo, salda eta bustiez gozatzeko ibilbide bat egiteko aukera izanen da hamahiru ostatu eta jatetxetan: Olaben Lorentxo; Oronozen Hotel Urgain; Elizondon Sobrino, Goiz-alde, Casino, Futbolin, Karrika eta Mendi; Iruritan Olari; Elbeteko Ostata; Arizkunen Bixta Eder eta Uxo eta Ordoki auzoan Ordoki Erretegian.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Biak Bat taldekoak zahar etxean

Biak Bat taldekoek *Etor zaitetz bisitan, oparitu zure irribarra* programa landu dute zahar etxeko adinekoekin. Uztaila eta abuztuan, txakurrekin batera joan ziren egoitzara eta hainbat ekintza egin zituzten adinekoen egunerokoan animalien konpainia txertatuz. Taldekoen erranetan, ariketa hauen bidez, «gaitasun kognitiboak landu, bakardadearen sentimenduari aurre egin eta autoestimua eta egoera animikoa hobetzea lortzen da». Lau saiotan esaera zaharrik landu, barazkiekin jolas egin, objektuak identifikatu... eta txakurrak garbitu, orraztu eta txukuntzeko aukera ere izan zuten.

### OSPAKIZUNAK

Legasan Santa Leokadia bestak ospatuko dituzte asteburuan

### TTIPI-TTAPA

Herriko besta handien ondotik, Santa Leokadiaren omenezko bestak ospatuko dituzte Legasan. Irailaren 9an, larunbatean, 20:00etan altxaferoa bota eta ezkilak joko dituzte eta 21:00n zopak banatu. Irailaren 10ean, igandean, meza nagusia izanen da 11:00etan eta 13:00etan bazkaria. Hauspolariak taldearen dantzaldiarekin bukatuko da eguna.



**BEROPEL**  
egurrezko pelletak  
ECHEVESTE HNOS. SL



ES 025

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com

www.echevestehermanos.com





## GIZARTEA

EKONOMIA → ZOR PUBLIKOA ESPAINIAKO EKONOMIA ETA OGASUN MINISTERIOAREN DATUAK

# Banketxeekin duten zorra %14 murriztu dute eskualdeko udalek

11,8 milioi euro zor dituzte eskualdeko 14 udalek

## TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPAren Nafarroako eremuan dauden 25 udalerrietatik hamalauk 11,8 milioi euroko zorrekin itxi zuten 2016a. Hala ikus daiteke Espainiako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Ministerioak berriki argitaratu dituen datuetan. Emandako zenbakiak banketxeetan dauden zorrak dira.

## HERRIRIK ZORPETUENAK

Kopuru absolutoei begiratuta, generalean udalerrri handi eta jendetsuenak dira zorrik handiena dutenak. Baztanek 4,6 milioi euro, Lesakak 3,5 milioi, Bera eta Leitzak 0,76 eta 0,66 milioi euro, Doneztebek 0,46 milioi...

## ZORRA BIZTANLEKO

Alabaina, herri bakoitzak duen zorra biztanle

## DATUA

11

## UDAL ZORRIK GABEAK

Arano, Beintza-Labaien, Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubietak ez dute inongo zorrik banketxeekin.

le kopuruaren arabera banatuz gero, Zugarramurdi da herririk zorpetuena (2016an 237 biztanle zituela kontuan hartuz gero, biztanleko 1.590 €ko zorra zuen). Bigarren Lesaka litzateke (1.295 €ko zorra biztanleko), hirugarren Areso (790 €/biztanleko) eta laugarren Baztan (598 €/biztanleko).

## ZORPETZE TTIKIENA

Zor guttien duten herrien artean daude Etxalar (131 €/biztanleko), Ituren (145 €/biztanleko) eta Urdazubi (150 €/biztanleko).

HERRIA	2016ko ZOR BIZIA	2015eko ZOR BIZIA
ARANTZA	350.000 €	339.000 €
ARANO	0 €	0 €
ARESO	208.000 €	229.000 €
BAZTAN	4.618.000 €	5.069.000 €
BEINTZA-LABAIEN	0 €	0 €
BERA	757.000 €	856.000 €
BERTIZARANA	0 €	0 €
DONAMARIA	0 €	0 €
DONEZTEBE	459.000 €	672.000 €
ETXALAR	105.000 €	150.000 €
ELGORRIAGA	0 €	27.000 €
ERATSUN	0 €	0 €
EZKURRA	0 €	0 €
GOIZUETA	0 €	0 €
IGANTZI	221.000 €	242.000 €
ITUREN	76.000 €	85.000 €
LEITZA	662.000 €	776.000 €
LESAKA	3.539.000 €	3.839.000 €
OIZ	43.000 €	50.000 €
SALDIAS	0 €	0 €
SUNBILLA	141.000 €	156.000 €
URDAZUBI	60.000 €	126.000 €
URROZ	0 €	0 €
ZUBIETA	0 €	0 €
ZUGARRAMURDI	377.000 €	484.000 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.834.000 €</b>	<b>13.100.000 €</b>

2015etik 2016era ia udal guzti-guztiek arindu dute zorra eta, Elgorriagaren kasuan, aurre-

ko urteetatik zuen zorra erabat kitatu du. Azkenik, zorrik ez dutenak Arano, Beintza-Labaien,

Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubietak dira.

Egin zaitez ttipi-ttapa ren harpidedun



(0034) 948 63 54 58

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarinearatik  
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanc@gmail.com



Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T.948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com  
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

**HARRI LAN, S.L.**  
ESTRUTURA EN PIEDRA



BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA →



GIZARTEA → ABUZTUAREN 16AN

## Gaupasako giroa berpiztu du marrazki batek

Jabier labenek karteiko marrazki originala oparitu dio herriari

### Josebiñe eta Koro

Lezean egiten zen akelarre-gaupasa 2005. urtean antolatu zen azkeneko aldiz. 1983an hasi zen ospatzen besta hau, eta sekulako arrakasta izan ondotik, masifikazio arazo handiak zirela eta, bertan-behera uztea erabaki zuen herriak.

Ekitaldi honek besta eta kultura uztartzen ziotuen. Alde batetik, musika taldeek eta jartzen ziren ostatu erraldoiek, besta polita egiteko aukera ematen zuten (zikiroa, ogitartekoa, salda eta kafea ere eskainiz, goizeko 6ak arte). Bertze aldetik, kulturak ere toki garrantzitsua

izaten zuen: antzerkiak, pelikulak, abesbatzen emanaldiak... eskaintzen ziren. Erran beharra dago, besta honen ikurra sorginak, akerra eta joaldunak zirela, urtero-urtero bestan parte hartuz. Besta honek zuen bertzeko ikur bat, egitarauaren kartela zen, kolorea aldatuz, beti berbera erabiltzen baitzen. Hain xuxen, Iruñeko Xabi Alonso marrazkilariak diseinatutako irudi berezi batekin.

### SORGINEN MUSEOAREN 10. URTEURRENEAN

Hain juxtu, Sorginen Museoak 10 urte bete dituenean, gaupasako kontuak entzuten hasi gara eta hemen. Horren arrazoia, Jabier labenek herriari egindako oparia izan da; karteiko irudiaren marrazki originala eman baitu oparitan. Abuztuaren 16an ekitaldi polit batean gau-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaupasaren antolatzaileak, udaleko ordezkariak eta Jabier laben abuztuaren 16an.

zatu zen donazio hori. Bertan bildu ziren gaupasaren antolatzaileak eta udaleko ordezkariak eta garai haietako historia eta istorioak gogoratu zituzten.

### Buelta lanera

Bestak eta refeta ederki pasatu ditugu, eta lanera itzultzeko sasoi dugu. Denbora batez, herritar gehienak laborariak zirenean, orain

oro eta iratze lanetan hasiko ziren. Gauregin, berriz, udazken sasoi onddo, gaztain, eta usokin lotzen dugu... baita lana eta eskolarako itzulerarekin ere. Animo!



UTZITAKO ARGAZKIA

### Frontoi betearekin jokatu ziren pilota txapelketako finalak

Abuztuaren 15ean, haurretan, Xuban eta Joan izan ziren txapelkunak eta Pablo eta Loïc txapeldunordeak. Helduetan, Zenoz eta Xeberok jantzi zuten txapela, Mattin eta Noeli finala irabazita.

**NELI YANCI**  
BIZI eta OSASUN AHOHKULARIA  
ASEGURU MOTA GUZTIAK  
C007272664074J

Santiago 72B 31700 ELIZONDO  
T./F. 948 580 504 • 649 947 182  
generalielizondo@hotmail.com

Begiratu aukera gehiago gure web orrian  
[corneliayanciberrueta.seguros.generali.es](http://corneliayanciberrueta.seguros.generali.es)

## AUTONOMOA ZARA?

Egin zure enpresarentzat hoberena dena: **babestu**

- ✓ Negozioa, ibilgailuak, langileak, erantzukizun zibila...
- ✓ Baja, istripuak, osasuna, aurrezkiak, bizitza aseguruak...

**Doako aholkularitza**

**ARMUA JATETXEA**

T. 948 599 131  
Zugarramurdi errep. 3.km  
URDAZUBI

744 484 361

**ttipi-ttapa**



# SENPERE

KULTURA → EKITALDI KULTURALAK ABUZTUAN

## Hats Arteren balorazio ona egin du Hatsa Elkarteak

Abuztuan ekitaldi mota ainitz proposatu dituzte antolatzaileek

### Pierre BASTRES

Kultura maite duenak gustuko zerbait atzeman ahal izan du abuztuan Larraidean, Hatsa Elkarteak antolatutako egitarauarekin.

Lehen asteburuan, abuztuak 6, idazki poetiko bideoa erakutsiz hasi ziren Hatsa Elkarteak kideak. Ondotik, margo erakusketa eta musika ikus-aditu ahal izan zituzten behatzaileek, Ainara Maia, Mattin Martiarena eta Jokin Lasarekin.

Abuztuaren 12an, al-diz, ibilaldi izigarri bake-tsu bezain atsegingarria proposatu zieten partzue-ri, Auxtin Zamora antolatzaileak erran bezala, «Ortzana edo hobeki erranez, Ortziren oihana deitzen dugunaren barnerat. Denetarik urrun, oihanaren erdian, Zuraide, Uztaritze, Senperereko herriak mugatzaten duen Otsanzeko kapera biluzia aurkitu arte», Santiagoko bidean eraikia eta gero ahanztzia zena. Bazkalduta, Eskuz eta Begiz literatur talde berriaren aldia izan zen beren olerki liburuen aurkezteko, Xabier Soubelet, Ixabel Etxeberria, Pruden Sudupe eta Joseba Aurkerenarekin. Eguna

burutu baino lehen, Maddi Zubeldiak, Maddi Anduezak eta Enio Cantella-Andueza bere semeak musika eta olerkia uztartu zituzten bertze bi ekitalditan.

Azken eguna ere ibilaldi batez hasi zuten, Zuraide, Ainhoa eta Senperere arteko muga segituz. Indarberriturik, gozamen handiko ekitaldiak lerrokan eman zituzten artistek: Paxkal Bourgoinek eskuaraz eta dioula hizkuntzako liburu bat aurkeztuz, Josu Jimenez-Maiak bere azken liburu-ko eskuarazko haiku batzuk irakurriz eta Juankar Mugartzak liburu bat aurkeztuz Alvaro Mundinano Gartzandia margolariarekin. Egitarau zoragarria burutzeko, Itziar Gomezek eta bere alaba Malenek ikusarazi zuten haiek sortutako ekimen berezia eta azken hitza edo nota izan zuen Alex Mendizabalek bere soinu sorkuntzarekin.

Hiru egun hauek nolatsuki ikusi dituen galdeginda, Auxtinek ihardetsi du: «xoraturik nago, atsegin handiz iragan ditut egunak! Hoinbertze ekitaldiren artean, kulturaren gustua duenak atzeman dezake bere gustuko zerbait. Hitzeko eta bertze motako poesiez gozatu ahal izan dugu. Izan ere, askatasunez sortzen dena eta lasaitasuna eta atsegina ekartzen dautzuna poesia da».



ARGAZKIA: AUXTIN ZAMORA

Hats Arten parte hartu duten antolatzaileak eta artistak.



ARGAZKIA: PIERRE BASTRES

### Pantxo Valencia eta Xabi Berreterbide txapeldunorde esku-huska

Baigorriko pilota plazan iragan zen esku-huskako Frantziako lehen mailako finala, Senperereko Pantxo Valencia eta Xabi Berreterbide eta Irisarriko Harbeletxe eta Etxetoren artean. Hirugarren aldikotz lehiatzekoak ziren bi taldeak sasoi huntan eta ordu-ra arte garaipen bana bildua zuten. Erraitekoa da Baxenabartarrak ez direla nornahi, azkeneko bortz urteetako txapeldun direlaketoz. Zoi gehiagoka irisartarrek zoin-faltaguttiagokan irabazi zuten, goiti-beheiti ainitzen ondotik. Hastapenean, goi mailako partida jokatu zuten bi taldeek, gogor, tinko eta ederra. Senpertarrak aitzinetik eta maila izigarri polita erakusten ari ziren aspaldiko eskuko mina berpitu zitzaionean Valenciari. Min horrek Bastidirigoineko semeari ahalak murriztu ziozkan eta geroztik, tanto gehixeago galdu zituzten, ihardokitzen eta jazartzen entseatu izanagatik ere. Azken tantoetan tarte handiegia zen irabazteko, nahiz eta Berreterbidek jestu eder zombait erdietsi. Beraz, ez dute urriki senpertarrek, eta mendekatzeko parada izanen dute Ibarrungo besten karietarat, errebantxa ari direlaketoz antolatzen.





**BESTAK** → IRAILAREN 9TIK 13RA

# Musikak, pilotak eta dantzak lekua izanen dute bestetan

Azienda prima  
izanen da  
hondar  
egunean

## Joana GERENDIAN

Bortz eguneko bes-  
tak antolatu ditu aurten  
ere Besten Komiteak.

## LARUNBATA, IRAILAK 9

- 09:00 Ball-Trap Plaxi-  
denbordan.
- 09:00 Basurde Zaha-  
ren txapelketa Errug-  
bi Zelaian.
- 16:00 Euskal Herrial-  
deen arteko herri kiro-  
lak igerilekuko errebo-  
tean.
- 17:00 Sarakorrika.
- 21:00 Ttek elektro-  
txaranga. 22:30 Itzia-  
rren Semeak. Gauer-  
dian Willis Drummond.  
01:30 DJ Tirri&Tery.

## IGANDEA, IRAILAK 10

- 10:00 Meza nagusia  
Urruñarrak klikarekin.
- 10:30 Luzean errebo-  
teko partidak.
- 16:00 Zarena Zarela-  
ko konpainiaren dan-  
tza ikusgarria.
- 16:30 Desfilea plazan:  
gaiteroak, joaldunak  
eta ahate jokoa.
- 19:00 Sarako kanta-  
riak.
- 20:30 Anje Duhalde.
- 22:30 Dantzaldia Xi-  
toak taldearekin. Los

Incognitos taldeak ka-  
rrikak animatuko ditu.

## ASTELEHENA, IRAILAK 11

- 10:30 Baigorri Usta-  
ritzeren aurka Luzean  
errebotean.
- 10:30 Sarako Izarra  
Senpereren kontra Bo-  
ta luze trinketean.
- 13:30 Zikirojatea. (Erre-  
serbatzeko 0632967 31  
- 0687156130).
- 16:30 Sarak'Olympik  
frontoian.
- 17:00 Esku pilota tx-  
apelketa trinketean.  
Larralde-Lambert, Du-  
cassou-Monde On-  
dars-en kontra. Wal-  
tary-Ospital, Guichan-  
dut-Bilbaoren kontra.
- 18:30 Euskal dantzak.
- 20:00 trikitalariak eta  
Saranga taldeak ani-  
matutako Aperitifa.
- 21:00 Xiberotarrak.
- 22:00 Garilak 26 tal-  
dearen kontzertua.

## ASTEARTEA, IRAILAK 12

- 09:00 Pasakako lagu-  
nak Tour trinketean.
- 10:30 Luzean errebo-  
tean Senpere Hazpar-  
neren kontra.
- 17:30 Joko Garbi erre-  
botean gazteen selek-  
zioa.
- 18:15 Joko Garbi hel-  
duen partida.
- 19:00 Mutxikoak Kux-  
kuxtu txarangarekin.
- 20:00 Marrazki bizi-  
dun gaua gaztetxean.



Goiko-Bera-



Goiko-Bera-

ARGAZKIA: GOIKO - BERA

- 20:30 Aperitifa Trikita-  
lariekin.
- 22:00 Dantzaldia Ko-  
loka taldearekin.

## ASTEAZKENA, IRAILAK 13

- 09:00 Sarako Azien-  
da prima Trinketeko  
zabaldegian.
- 10:30 Xokoko Txapel-  
ketaren errebantxa  
Trinketean.

- 11:30 Emakumeen Xo-  
ko Txapelketaren erre-  
bantxa Trinketean.
- 13:00 Puzgarriak eta  
zaldi ibilaldiak (euria  
bada kiroldegian).
- 17:00 Euskal Herriko  
Bestetako Esku Pilo-  
ta Txapelketako fina-  
la esku huska plazan.
- 18:00 Esku huska trin-  
ketean esku pilota tx-  
apelketaren finala. Trin-  
ketean eta plazan ber-  
tsulariak: Aitor Servier,  
Maddi Sarasua, Nahia  
Sasco. Zozketa.
- 19:30 Erramun Marti-  
korena.
- 21:30 Burrenba Elek-  
trotxaranga.
- 23:00 Suziriak.
- 23:15 Joselu Anaiak  
taldea.

**SARA**  
HERRIKO ETXEA

*Plazan elkar  
ikusiko dugulakoan  
Herriko Kontseiluak  
besta onak opatzen dauzkitzue*

SARARI BALHOREAREN  
ETA LEYALTASUNAREN  
SARIA EMANA  
LUIIS XIV-EK 1693-AN



## GIZARTEA

NAFARROA → 50. ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA

# Eskualdeko artzainak nagusitu dira Uharte Arakilen



ARGAZKIA: ARALAR MENDI ELKARTEA

Eskualdeko gaztagile eta artzainek ere sariak jaso dituzte

## TTIPI-TTAPA

Zortzi artzainek eta hamaika txakurrek parte hartu zuten abuztuaren 27an Uharte Arakilen jokatutako 50. Artzain Txakur Lehiaketan. Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, tartean ziren eskualdekoak ere: Antonio Alustiza (Areso) Bat eta Jai txakurrekin, Joxe Mari Istilart (Amaiur) Lagun eta Bizkor txakurrekin eta

Jorge Oteiza (Ornoz-Mugairi) Arakil txakurra-ekin. Horiekin batera, Jesus Razkin (Etxarri Arantz) Neska txakurra-ekin, Antonio Uharte (Uhart-Arakil) Lixta eta Argi txakurrekin, Joxe Lakuntza (Arbizu) Itur txakurra-ekin, Aritz Ganboa (Arruazu) Sua txakurra-ekin eta Javier Fernandez (Otano) Katy txakurra-ekin aritu ziren.

Fin moldatu ziren eskualdekoak. Lehenbiziko fasea gaindituta, finalera sailkatu ziren hiru txakurrak eskualdekoak izan ziren: Alustizaren Jai, Oteizaren Arakil eta Istilarten Lagun. Aresoarra-

Aurtengoa Artzain Txakur Lehiaketaren 50. edizioa izan denez, antolatzaileek orain arteko txapeldunei oroigarria eskaini nahi izan zieten. Tartean dira eskualdeko batzuk.

ren txakurra izan zen azkenariketa txukunen egin zuena eta beraiek eskeratu zuten garaipena.

## BERTZE SARIUAK

Artzain Egunaren barne, bertze hainbat lehiaketa ere egin ziren eta sarietako aunitz eskualde-erataro ziren. Ardi Latxaren esnearekin egindako Nafarroako XXXVI. gazta lehiaketan, hirugarren saria Elizondoko Kortariko Gasna gaztandegikoek lortu zuten, bosgarren saria Leitzako Jose Javier Sestorainek eta zazpiga-

rrena Elizondoko Maria Jesus Larretxeak.

Nafarroako Ardi Latxaren XXXIV. Esne ekoizpenaren lehiaketan, bi urte baino gehiagoko ardi burgorriekin, Azpilkuetako Juan Jose Irungarai izan zen irabazlea, Urdazubiko Manuel Bengoetxea txapelduordea eta Le-karozko Mari Jose Etxeberria hirugarrena. Adin horretako arpelitzekin Arizkongo Irigoien Rekarte elkarteak izan zen hirugarrena. Bi urte baino gehiagoko ardiekin ere, burgorrien sailean Manuel

Bengoetxea izan zen irabazle eta hirugarren Juan Jose Irungarai. Adin horietako arpelitzetan, berri, hirugarren saria Irigoien Rekarte elkarteak lortu zuen.

Lehiaketa morfologi-koan, borts ardi helduen taldearekin hirugarren saria lortu zuen Azpilkuetako Ramon Urutiak. 5 bildotsen taldearekin, arpelitzekin Irigoien Rekarte izan zen irabazlea eta burgorriekin, bigarren saria Iturengo Isidro Bazterrikak eta hirugarrena Ramon Urutiak lortu zuten.



## LANDER ARRIOLA AGIRRETXE

Zure musikaren oroitzapenak betetzen du gaurko isiltasuna, zure izaeraren oroimenak gaurko hutsunea. Bihotzean Lander.



## Mikaela DENDARIETA LARRAYA

Lesakan hil zen, 2016ko abuztuaren 17an. I. URTEURRENA.

Eskerrik asko zuk emandako guztiarengatik maite zaitugu. Muxuak ama Lesakatik zeruraino.

ETXEKOAK



## Jose Antonio IRIARTE IBARRA

Begiak jarri ezkeru zeru urdinean, han ikusten zaitugu hodeien gainean zure eskopeta zaharra harturik soinean. Uso batzuk ehizatu gure izenean guk eskertuko dugu joaten garenean

ZURE FAMILIA





IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan  
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

## EZKONTZAK

**Fabien Emile Jean Cantamessi** eta **Maria Virginia Sanchez Quiles**, Chateay-Malabry (Frantzia) eta Iruñekoa, Lesakan uztailaren 1ean.

**Markel Medinabeitia Bolinaga** eta **Goretti Etxegarai Lopez**, Arrasate eta Lesakakoa, uztailaren 22an.

**Mikel Pikabea Martinez eta Estibalitz Revuelta Villate**, Errenterikoak, Lesakan abuztuaren 1ean.

**Gorka Gonzalez Oiarzabal** eta **Ane Hinojal Portugal**, Irungoak, Lesakan, abuztuaren 2an.

**Miguel Ramon Irigoien Errazkin** eta **Iratxe Madariaga Arozena**, Lesaka eta Arantzakoa, abuztuaren 12an.

**Mikel Oiarbide Iruetagoiena** eta **Cecilia Merino Izquierdo**, Errenterikoak, abuztuaren 18an.

**Alain de Sola Hermoso de Mendoza** eta **Goretti Maritxalar Etxalar**, Iruñea eta Lesakakoak, Igantzina, abuztuaren 19an.

**Raul Montoya Ayesa** eta **Miriam Borruegas Ocio**, Iruñekoak, Igantzina, abuztuaren 25ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Julen Mitxelorena Etxeberria**, Doneztebekoa, ekainaren 28an.

**Sara Petirena Migeltorena**, Donamariakoa, uztailaren 6an.

**Ekiñe Erasun Tazon**, Legasakoa, uztailaren 10ean.

**Janire Elizagoien Arretxea**, Narbar-tekoa, uztailaren 13an.

**Uxue Iratzoki Agirre**, Etxalarkoa, uztailaren 17an.

**Irei Babaze Salaburu**, Zubietakoa, uztailaren 25ean.

**Adam Bensadid Ezzahar**, Doneztebekoa, uztailaren 27an.

**Nahia Caballero Pombar**, Lesakakoa, uztailaren 29an.

**Lorea Apeztexea Goñi**, Arantzakoa, abuztuaren 2an.

**Galder Garcia Pacha**, Doneztebekoa, abuztuaren 4an.

**Naila Korta Garcia**, Sunbillakoa, abuztuaren 9an.

**Udane Perurena Bazterrika**, Iturengoak, abuztuaren 10ean.

**Harek Arriola Apeztegia**, Doneztebekoa, abuztuaren 12an.

**Aner Zubiri Apeztexea**, Goizuetakoa, abuztuaren 14an.

**Lier Maritxalar Aldaz**, Lesakakoa, abuztuaren 15ean.

**Eneritz Uterga Diosdado**, Doneztebekoa, abuztuaren 16an.

**Adur Agesta Otxandorena**, Sunbillakoa, abuztuaren 18an.

**Maren Almandoz Goikoetxea**, Lesakakoa, abuztuaren 22an.

**Enea Mitxelena Beristain**, Lesakakoa, uztailaren 26an.

**Loinaz Antoni Pery**, Zugarramurdikoa, abuztuaren 28an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Jose Gabriel Larretxea Leitza**, Arantzakoa, uztailaren 19an, 66 urte.

**Isabel Rekalde Larre**, Iruñakoa, uztailaren 22an, 93 urte.

**Pili Goñi Arrijuria**, Elizondokoa, uztailaren 25ean, 72 urte.

**Julian Etxeberria Irigoien**, Arizkungoa, uztailaren 26an, 65 urte.

**Carolina Maia Bergara**, Berakoa, uztailaren 29an, 100 urte.

**Pilar Dorremotzea Etxebertz**, Erratzukoa, uztailaren 29an, 85 urte.

**Pedro Miguel Berriain Ezkurra**, Berakoa, uztailaren 30ean, 92 urte.

**Pedro Iriarte Gamio**, Arizkungoa, uztailaren 31n, 89 urte.

**Martin Mitxelena Aioroa**, Igantzikoa, abuztuaren 1ean, 90 urte.

**Maddi Hardoy Gurrutxaga**, Zugarramurdikoa, abuztuaren 1ean, 100 urte.

**Pilar Eizagirre Indakoetxea**, Iruñakoa, abuztuaren 2an, 71 urte.

**Carmen Agerralde Etxekolanea**, Donamariakoa, abuztuaren 10ean, 95 urte.

**Josefina Navarro Molina**, Leitzakoa, abuztuaren 10ean.

**Lander Arriola Agirretxe**, Lesakakoa, abuztuaren 11n, 26 urte.

**Teodoro Hidalgo Encinar**, Lesakakoa, abuztuaren 13an, 73 urte.

**Margarita Etxeberria Galarza**, Berroetakoak, abuztuaren 14an, 50 urte.

**Modesta Huarte Iñarga**, Berakoa, abuztuaren 17an, 104 urte.

**Concepcion Irazoki Nesprias**, Berakoa, abuztuaren 17an.

**Agustin Sainz Irigoien**, Igantzikoa, abuztuaren 19an, 68 urte.

**Tomas Oiarzabal Matxikote**, Doneztebekoa, abuztuaren 19an, 90 urte.

**Tomasa Gorosterrazu Ezkurra**, Zubietakoa, abuztuaren 19an, 101 urte.

**Nicolasa Jorajuria Etxandi**, Oronoz-Mugairikoa, 92 urte.

**Juan Mari Makazaga Aizpuru**, Goizuetakoa, abuztuaren 20an, 64 urte.

**Graciosa Arriada Goñi**, Elizondokoa, abuztuaren 20an, 80 urte.

**Antonio Goizueta Perurena**, Goizuetakoak, abuztuaren 22an, 68 urte.

**Jose Gabriel Larraalde Tapia**, Lesakakoa, abuztuaren 21ean, 72 urte.

**Juan Indart Bello**, Zugarramurdikoa, abuztuaren 23an, 85 urte.

**Sebastian Belarra Bazterrika**, Eratsungoa, abuztuaren 28an, 82 urte.

**Micaela Arizmendi Elizetxe**, Arizkungen, abuztuaren 29an.



Umetatik izan du kirolerako afizioa Ane Petrirenak (Sunbilla, 1997) eta bederatzitertekin korrikako zapatillak jantzi zituenetik ez ditu erantzi. Barañaingo Lagunak

taldean hasi zuen ibilbidea eta gaur egun Grupompleo Pamplona Atletico taldean dabil. 20 urte izanagatik, garaipen sorta ederra lortua du. Azkena, uztailaren 16an

Polonian egin duten Europako 23 urte beheitiko atletismo txapelketan eskuratu du; Espainiako selekzioarekin 4x100 errelebo lasterketan urrezko domina lortuta.

Ane PETRIRENA INSAUSTI | Atleta sunbildarra

# «Entrenamenduak eta konstantzia oinarrizkoak dira emaitzak lortzeko»

## Eneritz IRAOLA |

Zortzi urte zituenean Sunbillatik Iruñera joan ziren bizitzera Ane eta bere familia eta bizitokia aldatzean izan zuen kirolari heltzeko aukera: «ttikitari soinetako irakasleek beti erraten zidaten atletismoa edo antzeko zerbait egiteko, baina ez nuen pausua ematen. Sunbillan ez nuen erraztasunik inguruan ez dagoelako talderik. Iruñera etorritakoa aukera bazegoela ikusi nuen eta halaxe hasi nintzen Barañaingo Lagunak taldean». Izan ere, talde baten babes izatea «nahitaezkoa» da bere ustez, «bakarrik entrenatzea nahiko konplikatu da, batez ere hasieran».

Ttikitatik hasiz Ane espezialitate desberdinak lantzen: «krosa, saltoak, abiadura... Nik uste segitzeko sekretua horixe dela; ttikitatik ez espezializatzea. Jende aunitz ikusi dut ttikitari zerbaitetan espezializatu eta hogeitertekin utzi duena aspertu delako. Nahiz eta berez hobeki edo erosoago aritu espezialitate batean bertzeetan ere aritzea garrantzitsua da».

Gaztea da Ane eta kirolari izateak sakrifizio batzuk badakartzala aitortu du: «ia asteburuetan konpetizioak izaten ditugu eta aste tartean entrenamenduak...». Gai-

## AFIZIOA EZ OFIZIOA

«Atletismoa nahiko kirol minoritarioa da, ez dugu babeslerik eta ezin duzu bizia hontatik atera. Nik uste atletismoa praktikatzan dugun gehienok afizioz egiten dugula».

## BANAKA VS. TALDEKA

«Banaka zure esfortzua neurtzen da, onerako eta txarrerako. Taldean tentsioa, emozioa, ilusioa... konpartitzen dituzu baita zama ere. Taldean babestuago, lasaiago sentitzen zara».

nera kirola ikasketekin ere lotu behar izaten du: «fisioterapia ikasten ari naiz Bilbon eta diziplina aldetik aunitz eskatzen du, xuxen eraman behar duzu guztia». Ez da kasualitatea fisioterapia ikastea: «baneramatzen bizpahiru urte lesioekin eta ikusten nuen fisioterapeuten lana nahiko oinarrizkoa zela nire kirolean. Etorkizunean gus-tatuko litzaidake hortara dedikatzea, fisioterapia kirolari lotuta lantzea».

20 urte bertzerik ez ditu baina palmaresederro osatua du dagoeneko: 2013ko martxoan Espainiako txapeldun izan zen jubenil mailan 200



UTZITAKO ARGAZKIA

Ane Petrirena Insausti atleta gaztea Europako txapeldunaren urrezko dominarekin.

metroko lasterketan, aire librean nahiz barnean. Uztailaren 2an jokatutako Espainiako txapelketan, promesa mailan zilarrezko domina lortu zuen distantzia horretan eta uztailaren 16an Europako 23 urte beheitiko txapelketan Espainiako selekzioarekin 4x100 errelebo lasterketan urrezko domina lortu zuen. Azken garaipenaz gozatzen ari da oraindik: «finalerdia pasatu eta gero ikusi genuen bazirela bi faborito deskalifikatuak izan zirenak, Alemania eta Britainia Handia. Finalerako bigarren marka hoberekin

saikatu ginen, Suitzaren ondotik. Hor hasi ginen pixka bat pentsatzen dominetara hurbiltzeko aukera izaten ahal genuela». Pentsatu eta egin: «aitzineko hiruren artean eman genuen azken erreleboa eta azken taldekideak Suitza eta Frantzia aurreratzea lortu zuen. Ezin genuen sinetsi!».

Arrakastaren gakoak lekukoak ongi ematea izan zen Aneren iritziz: «bakarka ez ginen bertze selekzioak bezain azkarrak, baina lekukoemate on horiek eginez lortu genuen garaipena. Lekuko aldaketekin ber-

tzeek galtzen zuten denbora guretzat mesedegarria izan zen».

Aipatu behar da, urrezko domina soilik ez, Espainiako errekorra ere gainditu zutela: «finalerdietan, segundo erdi hobetu genuen eta ikusten genuen finalean horren bueltan ibiliiko ginela baina finalerdiko marka ere segundo erdi hobetzea lortu genuen».

Etorkizunari begira, argi du «atletismoan segi nahi du, mailari eustea». Horretarako ongi baino hobeki daki zer egin: «entrenamenduak eta konstantzia oinarrizkoak dira».

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO TXAPELKETA

# Menditarrak eta Berriozar nagusitu dira Herriz Herri Txapelketan

Lehia estua izan zuten bi taldeek bi proba konbinatueta

konbinatuan, berdinketa egin zuten Berriozar eta Menditarrak taldeek. Jardunaldi guztietako postuak kontuan hartuta ere berdinketa zutenez, jardunaldi guztietako denborak batu zituzten, eta hala, Menditarrak taldeari eman zioten lehenbiziko postua. Bigarren konbinatuan, ordea, Berriozar taldea nagusitu zen.

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriz Herri Txapelketaren laugarren eta azken jardunaldia jokatu zuten abuztuaren 19an Burlatan. Lehenbiziko proba



UTZITAKO ARGAZKIA

Unai Iantzi eta Fernando Etxegaraik maila bikaina erakutsi zuten lokotx biltzen.

Basaburua, Berriozar eta Menditarrak taldeek parte hartu dute aurten go Nafarroako Herriz Herri Txapelketan eta bi proba konbinatueta ibili dira lehia: lehenengo proba konbinatuan (lo-

kotx biltzea, zaku lasterketa, aizkora, korrika eta arpana) eta bigarren proba konbinatuan (txingaramatea eta ingude altzatzea). Lehen proban, Menditarrak izan zen txapeladuna eta bere gi-

beletik sailkatu ziren Berriozar eta Basaburua. Bigarren proban, ordea, Berriozar izan zen bizkorrena, eta Basaburua eta Menditarrak sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan.

AIZKORA → ABUZTUAREN 14AN EZKURRAN

## Jesus Etxeberria nagusi Nafarroako III. mailako txapelketan



## TTIPI-TTAPA

Ezkurrako besten barne, abuztuaren 14an jokatu zen Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketaren finala. Bortz aizkolarari aritu ziren lanean eta 45 ontzako bi enbor eta berzte bi kanaerdiko moztu behar izan zituzten. Guztietan bizkorrena Patxi Mindegia zubiatarra izan zen (09:54.48) eta bere ondotik Beintza-Labaiengo Jon Telletxea gelditu zen

(10:51.27). Hirugarren postua Iker Gorritirentzat izan zen. Laugarren postuan, Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria gelditu zen eta bosgarren postua ere Beintza-Labaienera joan zen, Jacinto Etxekonanearentzat izan baitzen. Lanak akitzen lehenbizikoak izateagatik Patxi Mindegia eta Jon Telletxea maila igotzea lortu dute. Hala, Nafarroako II. Mailan ariko dira.

AIZKORA → ABUZTUAREN 17N ARANTZAKO KANPORAKETAN

## Nafarroako II. Mailako aizkora txapelketako finalistak erabaki dituzte



## TTIPI-TTAPA

Arantzako bestetan, abuztuaren 17an, Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zuten bederrati aizkolarik. Bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat moztu behar izan zituzten eta guztietan bizkorrena Leitzako Eneko Saralegi izan zen. Eskualdeko gehiago ere aritu ziren lanean: Beintza-Labaiengo Jon Telletxea, Zubietako Mikel Indakotxea eta

Patxi Mindegia, Aresoko Asier Pellejero eta Beintza-Labeingo Miguel Angel Etxeberria. Lehen bortz sailkatuak Saralegi, Resano, Kañamares, Telletxea eta Belza izan ziren eta beraiek ariko dira nor baino nor irailaren 30ean Igantzin jokatu den finalean. Bertalde aipatu txapelketan parte ez hartzea erabaki dutenez Floren Nazabal, Juan Jose Erdozia eta Oihan Larretxeak maila galduko dutela.



HERRI KIROLAK → ABUZTUAREN 12AN SUNBILLAN

# Vicente eta Saralegi nagusitu dira XVI. Ramon Latasa Sarian

Maika Ariztegi nagusitu zitzaion Julian Larreari aizkora apustu berezian eta Xanta Sousak 63 metro egin zituen 75na kiloko txingekin

## TTIPI-TTAPA | SUNBILLA

Iker Vicente eta Ruben Saralegi lehengusua nagusitu ziren abuztuaren 12an Sunbillan, Ramon Latasa zenaren omenez hamaseigarren urtez antolatutako aizkora sarian. Irabazleek 30 minutu eta 19 segundo behar izan zituzten hamar kanaerdikoak eta sei 60 ontzakoak mozteko.

Hainbat urtez garai izan diren Aitzol Atutxa bizkaitarrak eta Ugaitz Mugertza gipuzkoarrak 32 minutu eta 15 segundo behar izan zituzten eta bigarren gelditu ziren; hirugarren, Mikel Larrañaga eta Iñaki Azurmendi gipuzkoarrak gelditu ziren (34:12), laugarren Donato Larretxea aranztarra eta Jon Rekondo leizarrak izan ziren (34:28) eta jondan urteko txapel-dunak, Xabier Orbegozo Arria V.a eta Joseba Otaegi, bosgarren izan ziren.

Proba nagusia izanagatik, ez zen hau Sunbillako pilotalekua lepo bete zutenek ikusi zuten apustu bakarra. Maika Ariztegi iturendarrak



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ramon Latasa Sariko proba ezberdinetan parte hartu zuten kirolariak eta antolatzaileak.

eta 88 urteko Julian Larrea bizkaitarrak aizkora apustu berezia egin zuten. Oinbikoa moztu behar izan zuten, Ariztegi bi eskurekin (emakume batek plazan neurri honetako enborra moztzen duen lehen aldia) eta Larreak esku bakarrarekin. Azkenean, emakumea nagusitu zen eta iturendarrak 14 minutu eta 3 segundo behar izan zituen oinbikoa mozteko. Larreak 17 minutu eta 18 segundo behar izan zituen, baina txalo zaparrada handia jaso zuen, nahiko meritua baitu adin horretan halako enborra moztea.

Xanta Sousa lesakarra 75 kiloko txingekin aritu zen eta bi plaza eta 7 metro osatu zituen (63 metro denera). Duela bi urte 50 kiloko txingekin ezarri zuen marka Xantak Sunbillan eta orain, gizonak ere erabiltzen ez dituzten 75 kiloko txingak eraman zituen (emakumeak 25 kiloko



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Xanta Sousa txingekin eta Maika Ariztegi aizkoran, bikain.

txingekin aritzen dira txapelketetan eta gizonetzkoak 50 kilokoekin).

Harrijasotzaileen arteko desafia ere izan zen Sunbillan. Aimar Irigoien eta Jesus Mari Iruetagoiena Izeta III.a ari-

tu ziren, 125 kiloko zilandarekin eta 112,5 kiloko kubikoarekin. Irigoienek bortz altxaldiko alde atera behar zion Izetari bi harrien artean eta horixe lortu zuten.

## EUSKAL HERRIKOA

Ingude altxatze txapelketa hirugarrenez irabazi du Maika Ariztegi

## TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko ingude-jasotze txapelketak jokatu zituzten abuztuaren 15ean Amurrión (Araba). Pronostikoak bete eta Maika Ariztegi iturendarra txapel-dun suertatu zen emakumezkoetan eta Arabako Jon Lapazarán gizonetzkoetan.

2014an egin zen lehen aldiz emakumezkoen ingude-jasotze txapelketa eta Maika Ariztegi izan zen txapel-duna. 2015ean, bigarren izan zen, Haizea Ziarrusta bizkaitarrak baino altxaldi bat guttiagorekin. 2016an, berriz ere txapela berreskuratu zuen Maika Ariztegi eta beraz, aurtengoarekin Euskal Herriko hirugarren txapela du modalitate honetan. Amurrión, 10 kiloko ingudearekin minutu eta erdian 96 altxaldi egin zituen Maika Ariztegi txapela janzteko, Iruñean lortu zuen errekorretik hurbil (99 altxaldi egin zituen orduan, baina 9 kiloko ingudearekin). Virginia Finol nafarra, Karmele Gisasola bizkaitarra eta Aurelie Vanschamelout lapurtarra izan zituen areriu.

Gizonezkoetan Jon Lapazarán arabarra nagusitu zen, 90 jasoaldirekin. Imanol Martin nafarra, Ioritz Pereira bizkaitarra eta Juan Carlos Lopez arabarrarekin aritu zen.





ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Aurtengo txapelketako lau talde onenak, antolatzaile, agintari eta laguntzaileekin batera.

LAXOA → BAZTAN-ERREKAKO XXXVIII. TXAPELKETA

# Miguelene nagusitu zaio Biek-iruritarren arteko finalean

9-4 irabazi zion abuztuaren 5eko finalean Donezteben

**TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE**

Baztan-Errekako 38. Laxoa txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 5ean Doneztebeko Bear-Zanan eta azken bietan bezala, Irurita Miguelene suertatu zen txapelkun, Irurita Biek taldeari 9-4 irabazita.

Irurita Miguelena taldean, iazko laukote berbera, Xabier Barberena sakalaria, Gorka Urtasun numeroa eta Jago-ba Ramos eta Egoitz Prim laurdenak aritu ziren; Txapelkunordeizan zen Irurita Biek taldearekin Jorge Azkarate sakalaria, Joseba Urtasun numeroa, eta Iñaki Etxandi eta Guillermo Etxenike laurdenak.

Beti aitzinetik izan zen Irurita Miguelenetaldea (5-0, 5-3, 7-3, 7-4, 9-4). Emaitzak erakusten duena baino estua-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Txapelkunak kokoriko, eta txapelkun ordeak zutik.

goa izan zen finalak bi ordu iraun zuen. Sakean hobe ibili zen Xabier Barberena Jorge Azkarate baino eta numero gisara aritu ziren Gorka eta Joseba Urtasun anaien artean ere, gazteena nagusitu zen.

Iban Santesteban doneztebarra aritu zen marrazain, eta Doneztebeko Javier Bertiz, Iruritako Jose Javier Elizaintzin eta Arraiozko Aritz Alunda epaile.

## DONEZTEBE HIRUGARREN

Hirugarren posturako norgehiagokan Doneztebe Apeztegia taldeak (Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Iban Santesteban eta Joseba Juanena) 9-4 irabazi zion Arraioz Sargardia taldeari (Mikel Mindegia, Xabier Mihurra, Jon Gamio eta Aritz Alunda).

Doneztebeko Udaleko Jon Etxekolanea eta

Nerea Telletxea zinegotziek jarri zizkieten txapelak irabazleei; bigarren postuko sariak Isabel Elizalde Nafarroako Gobernu kontseilariak banatu zituen, Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko Josu Janices eta Nafarroako Pilota Federazioko Rufino Pulidok eman zizkieten sariak hirugarrenei, eta Pilotarien Batzarrako Jose Artetxek laugarrenei.

## GAZTE TXAPELKETA

Gaztetxo eta gazteak azken txanpan sartuak

### TTIPI-TTAPA

Helduei txanda hartuz, gazte eta gaztetxoak ere ari dira udan beraien txapelketak jokatzen. Gazte mailan borts talde ari dira eta gaztetxoan mailan zortzi. Bi kategoriatako finalak irailaren 16an jokatu dituzte Donezteben, 16:00-etan gaztetxoena (hau irakurtzerakoan jokatua izanen dituzte finalerdiak) eta eta 17:30ean gazteena, li-gaxkan lehen bi postuetan sailkatutakoan artean.

## TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA
2013	DONEZTEBE
2014	DONEZTEBE
2015	IRURITA
2016	IRURITA
2017	IRURITA



HERRI KIROLAK → 16:00ETATIK AITZINERA

# Euskal Herrialdeen Arteko Herri Kirol txapelketa larunbatean Saran

Eskualdeko hainbat kirolari ariko dira Nafarroako taldean

## TTIPI-TTAPA

Duela bi urte Elizondon jokaturako edizioaren ondotik, berriz eskualdera itzuli da Euskal Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketa. Saran jokaturako da larunbatean, irailak 9, 16:00etatik aitzinera Omordia pilotalekuan.

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere, Nafarroako taldearekin eskualdeko hainbat kirolari



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lesakako Beti-Gazte sokatira taldekoak izanen dira nafarren ordezkari.

lari ariko dira lanean: lokotx biltzen, Fernando Etxegarai beratarra ariko da eta 1,25 metrotarako paratutako 50 kox-

korrak bildu beharko ditu. Ingudearekin Josetxo Urrutia leitzarra ariko da eta lasto altxatzen Amairuko Iñigo

Goienetxek ordezkaturako du Nafarroako taldea. Harri-altxatzen Xabier Ariztegi Santxin etxalartarrak 100 kiloko

harriari ahalik eta altxal-di gehien eman beharko dizkio bi minutuz. Txingekin Miguel Angel Sukuntza leitzarra ariko da eta sokatiran Lesakako Beti-Gazte taldekoak lehiatuko dira.

## GAINERAKO KIROLARIAK

Nafarroako taldea osatuko duten gainerako kirolariak hauek izanen dira: orgarekin Iruñeko Albaro Zugarrondo ariko da, arpanean Iraizozko Josetxo eta Iñaki Barnerena anaiak, aizkoran Otsagiko Iker Vicente ariko da eta zukuekin Oier Aizkorbe, Iñaki Iraizoz eta Oskar Aguas ariko dira.

LASTERKETAK → ABUZTUAREN 20AN SARAN

# Dani Iparragirre arantzarrak irabazi du Sarako kontrabandisten lasterketa

Jone Zelaieta beratarra izan da lehenbiziko emakumea

## TTIPI-TTAPA

Sarako Kontrabandisten Lasterketaren 54. edizioa jokatu zen abuztuaren 20an eta 36

lasterkarik egin zuten ibilbidea. Tartean aritu ziren eskualdeko hainbat, hala nola, hirugarren gelditu zen Asier Apezetxea arantzarra edo emakumezkoetan bizkorrena izan zen Jone Zelaieta beratarra.

36 lasterkarien artean, Dani Iparragirre izan zen helmugaratzen le-



ARGAZKIA: PIERRE EZCURRA

Jone Zelaieta lehenbiziko emakumea helmugan, polizietatik ihesi.

hena, 42 minutu eta 25 segundo behar izan zituen 8,4 kilometroko lasterketa egiteko. Bere gibeletik, Pantxo Saint Martin sailkatu zen (00:42:43) eta hirugarren helmugaratu zen Asier Apezetxeak 42 minutu eta 50 segundo behar izan zituen.

Emakumezkoetan bizkorrena Jone Zelaieta izan zen. Honek 52 minutu eta 16 segundotan bukatu zuen lasterketa.

Aipatzekoa da, bertzalde, 8,4 kilometrako lasterketa honek inguruko 18 muga herrietako bi korrikalari gonbida-

tzen dituela lasterka egitera. Horrez gain, kontrabandistak gogoan, lasterketako lehenbiziko kilometro eta erdian eta azken 200 metrotan zakua eraman behar izaten dute korrikalariak bizkar gainean, 8 kiloko gizasemeek eta 4 kiloko emakumeek.



# gorputza astintzeko garaia...

autoestimua hobetzeko eta ondorioz, baita bizi kalitatea ere

bizi estilo osasuntsuaren abantailak

Gauza jakina da ariketa fisikoak eta kirolak onura fisiko, psikologiko eta sozialak dakartzala. Azken urteotan kirola eta osasunaren arteko lotura azpimarratzen da bertzeak bertze, sedentarismoak dakartzan ondorio

negatiboak ezagutzen direlako, konparaziora gaixotasun kardiobaskularrak. Hori dela eta, osasunaren kontzientzia soziala zabaltzen ari da gizartean eta ariketa fisikoak garrantzia hartu du gure artean.

Ariketa fisikoaren eta ongizate psikologikoaren arteko lotura azpimarratzen dute osasun arloko profesionalak. Antsietatea, estresa eta depresioa prebenitzeko edo tratatzeko eraginkorra dela diote. Batetik 'entreenimenduaren hipotesia' argudiatzen dute, kirolak estresa eragiten digun horretatik distraitzen gaituelako eta, bertzetik, 'endorfinen hipotesia', ariketa fisikoarekin garunak eta hipofisiak endorfinak askatzen dituelako, euforia egoera bat sortuz.

Jarduerak 3 urteik aitzinera irakasle titulatuak toki mugatuak

Academia de Danza **rebeca**

ikasturte hasiera: irailak 11



Zazpigerutze, 6 **DONEZTEBE** | T. 607 744 199  
academiadedanzarebeca@gmail.com  
[www.danzarebeca.com](http://www.danzarebeca.com)

**LESAKA**ko UDAL KIROLDEGIA

[www.lesakakoudalkiroldegia.com](http://www.lesakakoudalkiroldegia.com)



Irailaren 9an eta 10ean **ESKAINTZA BEREZIA**  
**%50eko** deskontua matrikulan  
112,26€ ordaindu beharrean 56,13€ ordainduko da

Komentu kalea, 2 · 31770 **LESAKA** · T. 948 637 400  
kiroldegia@lesaka.eus

**ANA TOVAR**  
YOGA IRAKASLEA

DONEZTEBE · ELIZONDO BERA · ZUBIETA

SAIO IREKIAK PROBATZEKO

**679 210 910**



**TOKI ONA**  
Berako Udal Kiroldegia

2017-18  
**Kirol Jardueren programa**  
Apunta zaitetz!

Laster eskuorria zuen etxean!



**Urdis Berak**  
SERVICIOS DEPORTIVOS Y EDUCACION FISICA

**Berako Toki-Ona kiroldegia** @berakiroldegia  
INFORMAZIOA: 948 630 215 · bera@urdisl.com



## irailak 7 - 21

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) edo 948 63 54 58

## Kontzertuak



LESAKA | 2017.09.15

**Aire Ahizpak kantuan 'Euskara Musu-truk' kanpainaren baitan**

Euskaltegiko matrikulazio kanpaina giro-tzeko Bortzirietan antolatu dituzten ekitaldien barne, Aire Ahizpak kantari ariko dira irailaren 15ean Lesakako Plaza Zaharrean, 20:30etik aitzinera.

## Ikuskizunak



DONEZTEBE | 2017.07.16

**Ene Kantak-en 'Astonauta' ikuskizuna kiroldegian**

*Astonauta* ikuskizuna eskainiko du Ene Kantak irailaren 16an Doneztebeko kiroldegian. Ikuskizuna 18:00etan hasiko da eta sarrerak salgai daude dagoeneko, sei eurotan.

## Pastoralak



ETXALAR | 2017.09.16-17

**'Karmen Etxalarkoa' pastoralara eskainiko dute Etxalarko frontoian**

Hilabetetako lanaren ondotik, ailegatu da *Karmen Etxalarkoa* pastoralaz gozatzeko ordua. Ehun lagunetik goiti igoko dira oholta gainera eta bi aukera izanen dira pastoralara ikusteko: irailaren 16an eta 17an, 15:30ean.

## Solasaldiak

SARA

**'Xamanismoa eta gaur egungo xamanismo osasuntsua' hizpide**

Irailaren 16an 18:00etan.

## Erakusketak

ELIZONDO

**Kanpoko margo ikastaroetako ikasleen lanak**  
Irailaren 10era arte

Arizkunenea Kultur Etxean.

**Jose Luis Alzugarainen lanak**

Irailaren 17ra arte Jaime Urrutia karrikako 3.ean. Ortzegunetik igandera 19:00-21:00.

**Ana Mari Marinen margoak**

Irailaren 17ra arte Bergarenean, 11:30-13:00 eta 18:00-21:00.

SARA

**Eskuen Lana Elkartekoen eskulan eta margo erakusketa**

Irailaren 8ra arte Lurberri gelan, 10:30etik aitzinera. Sartzea urririk.

**Valerie Perienneren margo akrilikoen erakusketa**

Irailaren 15etik urriaren 1era Axuri-Arten, 10:00-12:00 eta 15:30-18:00.

## Pastoralak

ETXALAR

**Karmen Etxalarkoa pastoralara**

Irailaren 16an eta 17an frontoian 15:30etik aitzinera. Sarrerak salgai 15 eurotan.

## Bestak

ERATSUN

**Herriko pestak**

Irailaren 7tik 10era. Xehetasunak 21. orrialdean.

OIZ

**Herriko bestak**

Irailaren 8tik 10era. Xehetasunak 20. orrialdean.

SARA

**Herriko bestak**

Irailaren 9tik 13ra. Xehetasunak 35. orrialdean.

ELBETE

**Herriko bestak**

Irailaren 13tik 17ra. Xehetasunak 29. orrialdean.

ARANTZA

**Eguzkialdeko bestak**

Irailaren 9an. Xehetasunak 14. orrialdean.

ETXALAR

**Urritzokietako bestak**

Irailaren 14an, 24 eta 25ean.

Xehetasunak 13. orrialdean.

IGANTZI

**Piedadeko bestak**

Irailaren 9an. Xehetasunak 15. orrialdean.

BERA

**Illekuetako bestak**

Irailaren 16an eta 17an. Xehetasunak 10. orrialdean.

## Ospakizunak

LESAKA-BERA

**Euskal Herria-Eire topaketa**

Irailaren 9an 09:00etan mendi ibilaldia Lesakatik

## PROPOSAMENA

LEITZA

**Taloaren hitzordua irailaren 17an**

Taloaren bueltan, egun oso festa antolatu dute aurtur hamahirugarren aldiz Leitzan, Plazaola Partzuergo Turistikoko eta Leitzako Udalak. Taloak janez gozatzeko aukera izateaz gain, Eskualdeko Talo Lehiaketa egingen dute, baita talo tailerra ere. Plazaolako artisauak ere plazara aterako dira eta erakustaldiak ere izanen dira. Aurtengo berrikuntza, halere, irrintzi lehiaketa izanen da.





Berara, irlandarrei ongieto-  
rria, bideoak, bazkaria...

IRURITA

**Dantzari Eguna**

**Irailaren 16an** 18:30ean.

SUNBILLA

**Ulibeltzak Elkartaren Eguna**

**Irailaren 16an.**

DONEZTEBE

**Basurde peñaren besta**

**Irailaren 16an eta 17an.**

LEITZA

**Talo Eguna**

**Irailaren 17an.**

ITUREN

**Joaldunen Eguna**

**Irailaren 23an.**

**Ikuskizunak**

DONEZTEBE

**Ene Kantak-en 'Astronauta'**

**Irailaren 16an** 16:00etan  
kiroldegian.

BERA

**Pirritx, Porrotx eta  
Marimototsen ikuskizuna**

**Irailaren 30ean** *Tipi-Tapa,*  
*Korrika!* ikuskizuna 17:30ean  
Eztegara pilotalekuan.

**Kontzertuak**

LESAKA

**Aire Ahizpen kantaldia**

**Irailaren 15ean** Plaza  
Zaharrean, 20:30ean.

SARA

**Saiberri abesbatza elizan**

**Irailaren 22an** 21:00etan.

BERA

**Jabier Perez de Azpeitia  
pianoan Miguel Olano tenore  
errioxarrekin**

**Irailaren 24an** Kultur  
Etxean, 19:00etan.

**Bertsoak**

BERA

**Bertso-triki-pintxo-poteoa**

**Nire aukera**



**Ane Miren BARANDARAIN**  
Aresoko gaztea

*«Zoriontsu izateko daukadanarekin  
konformatzea bezalakorik ez dago!»*

**A**reson bizi den 21 urteko neska alai eta mugitua» dela esanez aurkeztu du bere burua Ane Mirenek. Eta horren erakusle da bere afizioen inguruan galdetuta eman duen erantzuna: «geldirik ez egotea! Horregatik askotan bi zakurrak hartu eta mendira joaten naiz». Ibilian ibilian igotzen da hain gustuko dituen tontorretara «Aresoko mendiak dira herriko txokorik ederrena, ibilaldi dotoreak egin daitezke inguruak ikusiz».

Ikasturte hasiera, «uda bukatu eta berriz ere pilak jartzeko garaia da» beretzat, baina aurten, ikasketak bukatzen dituenek, «hurrengo urteari begira zer pentsa gehiago ematen du». Umetako desio bati segika, Haur Hezkuntzako irakasle gradua bukatzeaz da: «ttikia nintzenean beti esaten nuen egunen batean irakasle izan nahi nuela. Betidanik gustatu izan zait umeen mundu hori eta horrelaxe hasi nintzen!». Lanean hasteko garaia iristen denean ikasle zein gurasoekin hartu-emanen aritzea tokatuko zaio eta argi du: «denok dauzkagu gure berezitasunak, bakoitzari bere neurria harra-patzea eta pazientziarekin jokatzeko da sekretua!».

Asteburua ailegatzeko denean, plan berezia osatzeko ez du askorik behar: «nere ingurukoekin egin dezakedan edozein gauza, ez dut asko behar ongi pasatzeko!». Plaza Zaharreko geltokian egiten dituzten arratsalde pasak dira horren erakusle, bertako paretek hitz egingo balute: «ez dakit zer aterako zen hortik! Gure bigarren etxea dela esan daiteke eta, hainbeste denbora pasatzen dugu han...».

Aurpegian izan ohi duen irribarreak erakusten du zoriontsu bizi dela eta horretarako «daukadanarekin konformatzea bezalakorik ez dago! Nire ingurukoak ongi eta osasuntsu egotea eta bizitzako momentu bakoitza ahalik eta gehien aprobetxatzearekin nahikoa dut». Amets egiterakoan horregatik, ez du desio handien bila urrutira hegan egiten, «orain bezala segi nahi nuke, eguneroko alaitasun hori mandu eta zoriontsu egiten nauten pertsona horiek denak pozik ikusiz».

*«Aresoko  
mendiak dira  
herriko txokorik  
ederrena, ibilaldi  
dotoreak egin  
daitezke inguruak  
ikusiz».*

**Irailaren 22an** 19:00etan  
Beralandetatik abiatuta.

**Azokak**

SARA

**Ekoizleen azoka**

**Ortziraletan** 16:30etik  
20:30era frontoian.

**Artisau, sortzaile eta  
merkatarien azoka**

**Irailaren 25era arte astele-  
henetan** 09:00etatik  
aitzineran plazan.

ELIZONDO

**Piriniar arrazako behien  
lehiaketa-enkantea**

**Irailaren 23an eta 24an.**

**Lehiaketak**

ESKUALDEA

**III. Argazki Lehiaketa  
erran.eus-en**

**Irailaren 12ra arte**  
aurkez daitezke lanak.

**Kirol hitzorduak**

SARA

**Euskal Herrialdeen Arteko  
Herri Kirol Txapelketa**

**Irailaren 9an** 16:00etan  
hasita Omordia pilotalekuan.

**Sara Korrika lasterketa**

**Irailaren 9an** 12 kilometroko  
lasterkaldia, 17:00etan.

LESAKA

**Mendi bizikleta ibilaldia**

**Irailaren 17an** 09:00etan  
abiatuta.

BAZTAN

**Baztango Mendigoizaleen  
mendi irteera**

**Irailaren 16an eta 17an**  
Pirinioetara ateraldia.

LEITZA

**Plazaolako naturbideen  
maratoia eta maratoi erdia**

**Irailaren 17an.** Xehetasunak  
27. orrialdean.

Ekitaldi gehiagoren berri  
izateko, begiratu:  
**erran.eus** (agenda)

**ETXEBIZITZAK****salgai**

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 60.000 euro. ☎646 774117.

**ITUREN.** Neurri desberdinetako apartamentuak hagitz prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

**ANZABAL**  
**INMOBILIARIA****BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

**ORONOZ-MUGAIRI.** Pisua salgai, 90 m<sup>2</sup>ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, margotu berria, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

**LESAKA.** Herri sarreran etxe bifamiliarra salgai. 2 solairu, 5 logela, 3 komuna, garajea eta jardina. Oso egoera onean. Salneurri negoziagarria. ☎618 188300.

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Lehenengo solairuan, erdigunean kokatua, Alzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukalde estreinatua gabe. Berogailua

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES13 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gas-tu gutxi ditu, atezainarekin. ☎608 777926.

**ELIZONDO.** 104 m<sup>2</sup>ko pisua salgai Saskaitz plaza 4. zenbakian. Hornitua. Prezioa: 120.000 euro (tratuan zehazteke). ☎658 758173.

**ETXEBIZITZAK****errentan emateko**

**LESAKA.** Etxebizitza errentan emateko. Irailetik aitzinera. Irakasleentzako edo langileentzako. ☎678 855056.

**IRUÑEA.** Pisua errentan emateko. Lau logelakoa. Oso egoera onean. Unibertsitate eta ospitaleen

ondoan. Komertzio aunitz ondoan. ☎607 924379 / 670 303520.

**IRUÑEA.** Buztintxuri auzoan ia berria dagoen 3 logelako pisua errentan emateko. ☎660 541278.

**GARAJEAK/LOKALAK****salgai**

**DONOSTIA.** Bi garaje marra salgai. ☎678 855056.

**LURRAK/ORUBEAK****salgai**

**ELIZONDO.** Gorramendi karrikan (Merkatuzelai urbanizazioa), eraikitzeko 530 m<sup>2</sup>ko lursaila salgai. ☎636 513840.

**LANA****eskaintzak**

**ORONOZ-MUGAIRI.** Ormigo kamioi bat gidatzeko gidaria behar da. ☎948 326520.

**BERA.** Gasolindegian lan egiteko pertsona bat behar da. ☎948 631370.

**DONEZTEBE.** Titi ostatuan sukaldean lan egiteko pertsona bat behar da. ☎948 450271.

**URDAZUBI.** La Koska jatetxean zerbitzaria behar da. ☎948 599042 (09:00-17:00).

**LESAKA.** Atxaspi hotelerako garbitzailea behar da. ☎673 339920.

Gipuzkoako zaldien garraiorako enpresa batek **garraiolariak** behar ditu. Estatu mailako eta atzerriko garraioan aritzeko. Euskaldunak, trailerreko karnetarekin, aziendekin ibiliak eta lanerako gogoa dutenak. ☎652 706820.

Euskal Herriko argi komertzializadora batek Baztanen eta Nafarroan lan egiteko **komertzialak** behar ditu. ☎602 409716 (Alberto).

**LANA****eskariak**

**Neska** bat lan bila, adinekoak edo haurrak zaintzeko prest, interna bezala ere bai. Bertze edozein lanetan aritzeko ere prest. ☎631 779724.

**BORTZIRIAK-IRUN.**

Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. Konfidantzakoa. ☎686 947418.

**BORTZIRIAK-IRUN.**

Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Ordutegi zabalak. ☎686 947418.

**Umeak zaintzen** esperientziadun neska lana behar du. Bi urteko esperientziarekin zenbait Haur Eskoletan, bai eta udan zehar haurren zaintzetan ere. Iraila erditik umeren bat zaintzea behar izanez gero, deitu faborez. ☎675 336624.

**Emakume langile** eta arduratsua naiz. Adinekoak edota haurrak zaintzen, garbiketa lanetan edo ostalaritzan lan bila nabil. Esperientzia adinekoak zaintzen. ☎644 778212.

**Adinekoak zaintzen** orduka edo interna bezala, haurrak zaintzen eta garbiketa lanetan lan bila nabil. Interesdunak deitu. ☎693 284860.

**Adinekoak zaintzen** esperientziaduna, haurrak zaintzen edota garbiketa lanetarako lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko orduka edo interna bezala prest. Behar baduzu deitu. ☎635 296717.

**BASERRIA**DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(abuztuaren 18tik 25era bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 42 €

**Zerri gizena**  
1,434€ kiloak.

**Zerramak:**  
0,760 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/k Kanal  
**Extra** 4,32

**1.koa** 4,10  
**2.koa** 3,90

**Urruxak:** €/k Kanal  
**Extra** 4,34  
**1.koa** 4,20  
**2.koa** 4,00

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 120,00  
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 140,00  
idixkoak 185,00

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,29/3,39  
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,60/8,20  
8-10 kilokoak: 6,20/6,70



**BERAKO TAILERRAK**

FORD CONNECT. 1.8 TDCI  
**DIESELA** 4700 € IVA

JEEP GRAND CHEROKEE. Automatikoak.  
**DIESELA** OASION

N-121-A errepidea 63 km BERA  
T. 948 631 157 - 659 092 472

**Mutila**, obran edo adinekoak zaintzen lan bila. Behar izanez gero deitu. ☎651 923579.

**Berako emakume arduratsua** lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzen eta garbiketaren esperientziaduna. Lan horietan edo bertze edozein lanetan interesatua. ☎667 958488.

**Gizonezkoa** lan bila. Ostalaritzan sukaldari laguntzaile edota zerbitzari lanetan aritzeko prest, baita adinekoak zaintzen ere. ☎693 463186.

**MOTORRAK**  
salgai

**ARANTZA.** Erremolkea salgai. Hagitz ongi zaindua eta gutti erabilia. Kotxean sartzen ez dena eramateko egokia. Barneko neurriak: 115x96x60. Kanpoko neurriak: 120x135x60. Luzera osoa: 2,270. Dokumentazio guztiarekin. ☎608 174510.



**Renault Kangoo 1.5 DCI** autoa salgai. 6.600 euro. ☎ 616 198016.

**ANIMALIAK**  
salgai

**Zakurrei ilea mozteko makina** salgai. KM2, 45 Veko motorra, 2400/3000 RNP. Profesionala. Beroztzen ez dena. Bi aldiz ibilia bakarrik. ☎606 586603.

7 hilabetetako Pointer arrazako **ehizako zakurkumeak** salgai. Aita eta amak genetika oso ona. ☎630 221208.



**ANIMALIAK**  
opari

**Bi katakume** oparitzeko. Siamesa (emea) eta pintto-karia (arra). ☎650 797669.

**GOIZUETA.** Katakumeak oparitzeko. ☎619 988383.

**DENETARIK**  
salerosketak


**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

**ORONOZ.** Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta hari-tza. Etxera eramane da. ☎676 242520.



**ARANTZA.** Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

**Garajeko ate batienteak** salgai, oinezkoentzako atearekin. Neurriak: 4,50 metro zabal eta 3,65 metro altuera. ☎619913375.



**LEGASA.** Sukalde ekonomika kalefaktora salgai. ☎669 185858.

**LEGASA.** Egurra lehortzeko gasoliozko makina errentan emateko. ☎669 332549.

**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

**BERA.** Sanferminetako asteburuan, emakumeen bizikleta agertu da. ☎648 803205.

**BERAKO UDALA**

**TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOAK**  
HIRIGINTZA

Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen akordioak, 2017ko uztailearen 26koak:

- 9. poligonoko 251. lur-zatian (Bidasoa karrika, 49) Hirri-Jarduketako Plan Berezia, Berako Udal Plan Orokorra-aren aldaketa xehakatur, hasiera batez onestea.
- A291 eta A292 Jarduketa Asistemakoetan (3. poligonoko 291. eta 292. lur-zatiak; San Esteban karrika, 2) Hirri-Jarduketako Plan Berezia, Berako Udal Plan Orokorra aldatzen duena, hasiera batez onestea.

Bi espediente hauek jendeaurrean izanen dira hilabete batez, dagokion iragarkia NAOn argitara ematen denetik.

- 6. Sektoreko UE2an (11. poligonoko 14. lurzatia; Matzada zonaldea) Xehetasun Azterlana, hasiera batez onestea; espediente hau jendeaurrean izanen da 20 eguneko epean, dagokion iragarkia NAOn argitara ematen denetik.

Bera, 2017.08.08  
ALKATEA,  
Josu Iratzoki Agirre

**KATEA BIKE**

**2. eskuko bizikletak**

Kanthonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
kateabera@telefonica.net

**Atera TTIPI TXARTELA hemen**  
*probextu aukera!*

**ttipi txartela**

Josune Sorondo Odriozola  
72673152-A  
2019/04  
372

ttipi-ttapa

**Erabili Ttipi txartela pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan**



# PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELOZIRI



Kaixo laguntxo!!  
Heldu gara oporretatik bueltan!!!

## HONDARTZAN




- 1 
- 2 
- 3 
- 4 
- 5 
- 6 
- 7 
- 8 

Behean ikusten dituzun zortzi zati hauetatik sei ondoko marrazkitik bertatik hartuak dira. Bertze bi, ordea, ez.

Egilea: Garbine Ubede (Aiarri)

### ZABALDU KUTXA

Begiratu ongi giltza hauetako bakoitza. Batek bakarrik ireki dezake zerraila. Zein da?



Kontsultatu soluzioak  
[plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak)



# SUDOKUAK

Osatu lauki zuriak, goikoan figura geometrikoak marraztuz eta behekoan letik 4rako zenbakiak idatziz. Gogoratu elementu bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko eta lerro bakoitzeko.

	■		
		■	●
▲	◆		
		◆	

3		1	
	2		
		2	
	1		3

# LABIRINTOA

Lagundu loroari Bizargorriengana joaten. Ezker, eskuin, goiti, beheiti nahiz diagonalen mugitu daiteke, baina aingura, kataloxa, mapa edo txalupa duten laukietatik bakarrik pasatuz.

# IKASTURTE HASIERA

Ikaskideekin elkartzea, lagun berriak ezagutzea... ikasturte hasierako bizigarriak dira. Liburu berrien usainarekin nahasten dira orduan hasierako emozio eta urduritasunak. Bide berrian laguntzeko, ez duzue laguntzarik faltako, bertatik bertara dituzue eta beharrezko materiala eta punta puntako profesionak.

Irailarekin batera lanari ekiteko sasoia ailegaten da: erronka eta amets berriei tokia eginez.



## artesiaga

PAPERTEGIA ESKOLAK INFORMATIKA KOPISTEGIA BULEGOAK  
elizondo tel. 948 580 639 www.artesiaga.com

### KAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLERETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

ESKOLARRAKO BEHAR DUZUN GUTZIA!!

### Angie ENGLISH ACADEMY

T. 626 908 076  
angiacademy@gmail.com  
Elizagibela, 7 behea  
31740 DONEZTEBE

Cambridge English Exam Preparation Centre  
Cambridge English Teacher

8 urtetik aurrera. HAUR - GAZTE - HELDUAK  
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

Cambridgerako azterketa ofizialak prestatzen ditugu hagitz emaitza onekin. Itzulpenak ere egiten ditugu.

2017-2018 kurtsorako  
MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK  
Plaza mugatuak  
Ikasturte hasiera: IRAILAK 18

HIZKUNTZEKIN LANEGAN...



# urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



Berroetako **AIEKO MIGELTORENA** ARRETXEAK abuztuaren 28an 4 urte bete ditu. Zorionak Berroeta eta Narbartetik, bereziki Eider, attatto eta amatxok.



**AIALA SAN JUAN AROTZENAK** 11 urte bete ditu abuztuaren 12an eta **GEXANEK** 8 uztailaren 30ean. Zorionak eta muxu bana familia guztiaren partetik.



**LARRAITZ GOÑI ARANGUREN** Arantzako sorginik sorginenak 3 urte bete ditu abuztuaren 23an. Attatto, amatxo, amatxik eta ataxkiren partetik aunitz urtez preziosa!!! Muxu aunitz.



**LARRAITZ GOÑI eta ANARA HITZ** Arantzako eta Igantziko sorginik sorginenek 3 eta 2 urte bete dituzte abuztuaren 23an. Arantzako, Igantziko eta Lesakako familien partetik aunitz urtez lehengusina pixpirreta hauei.



**JOANES eta IRATIK** urteak bete dituzte abuztuaren 4an eta 25ean. Urte askotako esanez zoriondu nahi zaituzte zuen familiek.



**AIUR GARRO ORDOKI** lesakarrak 4 urte bete ditu abuztuaren 30ean. Aunitz urtez etxekoien partetik gure morroxko tikiari eta milaka muxo!!



Iturengo **HILARIA MUTUBERRIA** gure amatxik abuztuaren 15ean 90 urte bete ditu. Zorionak eta besarkada haundi-haundi bat etxeko familia guztiaren partetik.



Legasako **MAREN MARINELARENA ELZALDEK** abuztuaren 19an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu potolo bat familia eta bereziki zure ahizpa Nahiaren partetik.



Iturengo **BEÑAT PERURENA** **BAZTERRIKA** etxeko motoristak abuztuaren 9an 5 urte bete ditu. Besarkada haundi bat Beñat, aita, ama eta Irati arrebaren partetik. Muxu pila.



**ENEKO VALVERDE LEIZA** lesakarrak 6 urte bete ditu irailaren 2an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik.




Anizko **ELORRI eta HARRIET** anai-arrebek irailaren 7 eta 13an urteak beteko dituzte. Aunitz urtez etxekoien partetik eta muxu handi-handiak biendako. Ongi pasatu zuen eguna!!!



**NAROA ELIZALDE MARIEZKURREN** abuztuaren 30ean 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Zubietako familia guztiaren partetik.



Leitzako **JUNE URKIOLA MARIEZKURREN** 5 urte bete ditu abuztuaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat Lide eta Izargiren partetik! Mua!!



Amaiurko **XANA MUJIKA ELIZALDEK** abuztuaren 16an bi urte bete ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat etxeko sorgintxoari familia guztiaren partetik!!




Lesakako **LEXURI AROTZENA PORTUK** 11 urte beteko ditu irailaren 15ean. Aunitz urtez familia osoaren partetik.



**LEXURI AROTZENA PORTU** lesakarrak 11 urte beteko ditu irailaren 15ean. Zorionak eta hamaika muxu haundi Orti, Elorri eta Aiert anaien partetik. Ongi pasa eguna!



Sunbillako **IBAI PETIRENA** **GOROSTERRAZUK** abuztuaren 9an 7 urte bete zituen. Aunitz urtez Ibaixto, etxekoien partetik eta bereziki argazkiko lehengusina sorgintxoaren partetik. Eguna ederki ospatu genuen. Muxuak.




Lesakako **LIBE TAPIA MUTUBERRIAK** 8 urte bete ditu abuztuaren 29an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Doneztebeko **OIER LOPEZK** 4 urte bete ditu irailaren 4an. Zorionak etxekoien partetik, eta bereziki Irairren partetik. Lau muxu potolo!



**AINERE IGUZKIAGIRRE IRIGOIENK** 7 urte beteko ditu irailaren 10ean. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta batez ere loritzen partetik. Eguna eder bat pasa!



**PABLO IRAZOKI** urdazubiarrari eta esku pilotako talde guzietan zorionak Zugarramurditik, bereziki finalean aritu zirenei: Loic Pradelle eta Xuban Mentaberri txapeldunei eta Joan Pradelle eta Pablo Irazoki Oiaizola txapeldunordeei. Xarmanki gelditu ziren, 22-21. Muxu bat gure lehengusu Pablari. Iparraldetik irazokitar familia.



## KULTURKARI

DISEINU GRAFIKOA | PUBLIZITATEA  
T. 948 635 458 | www.kulturkari.com

LOGOTIPOAK | KARTELAK | ARGITALPENAK | EGUTEGIAK | BOLETOAK  
OROITGARRIAK | TXARTELAK | ORRI MUTUAK | POLTSAK  
ESTILO-GIDALIBURUAK | LONAK | BINILOAK...




### Eman **KOLOREA** mundu grisari!



Hemen zure enpresaren irudia edo komunikazioa...  
Modelo ezberdinak ditugu



# æek

euskara praktikoa



## % 100 AFEKTIBOA

**EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA**

### **Baztango AEK Suinki euskaltegia**

**IKASI EUSKARA ORDUKO EURO 1ean!!**

**¡¡APRENDE EUSKERA POR 1 EURO A LA HORA!!**

**Maila guztiak – Ordu-tegi guztiak · Todos los niveles y horarios**

**Talde presentzialak – Autoikaskuntza · Grupos presenciales – Autoaprendizaje**

**EGA prestatzeko ikastaroa**

**Gurasoendako talde bereziak eskoletan · Grupos especiales para madres y padres en las escuelas**

**Baztan Berri 7 · 948 45 24 71 · [baztan@æk.eus](mailto:baztan@æk.eus)**

**DIRU-LAGUNTZAK / BECAS**

**Udaleko dirulaguntzak jasotzeko aukera · Posibilidad de optar a ayudas del ayuntamiento**



**Ttapi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Ko-kontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**692** aleko  
irabazleak >



**ZOZKETAK**

**Camelot Park - 2 sarrera**

Fermin Jorajuria Mitxelorena | DONEZTEBE

**Irrisarri land - 2 sarrera**

Saray Inda Lizasoain | ARRAITZ

**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**

M<sup>a</sup> Angeles Rodriguez Lasarte | EZKURRA

**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**

Rosa Beltzunegi Arizmendi | ELIZONDO

**Onddo ta punto - Kamiseta bat**

Unai Aramendia Arina | LEITZA

**La Rhune - 2 sarrera**

Gotzon Etxabari Urbiola | MORENTIN

**Katxiporreta argitaletxea - Liburu bat**

Tere Korta Telletxea | BERA

**Katxiporreta argitaletxea - Liburu bat**

Maidar Azkarate Tomassone | ANIZ

**Katxiporreta argitaletxea - Liburu bat**

Begoña Sagaseta Andiaarena | DONAMARIA

2 tiket

**BAZTAN**  
ABENTURA PARK

ELIZONDO



**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)

2 sarrera



**ZUGARRAMURDIKO LEZEA**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)

2 sarrera



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**BUATXABAL**

[www.buatxabal.com](http://www.buatxabal.com)



Kamiseta bat


**LA RHUNE**

[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



2 sarrera helduentzat

**LI**  
**BU**  
**RU**  
**AK**



**Rosa Huertas**  
- Altxor kutxa

ibaizabal

[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)

**LA**  
**GUN**  
**TZAI**  
**LEAK**



[www.okilletailerraesp.blogspot.com.es](http://www.okilletailerraesp.blogspot.com.es)



[www.martiko.com](http://www.martiko.com)